

# INGURUMEN- ZIURTAPENAK EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN ERABILTZEKO GIDA PRAKTIKOA



© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

## ARGITARATZAILEA

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila  
Eusko Jaurlaritza  
Urkixo zumarkalea 36 – 6. solairua  
48011 Bilbo

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)

[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)

[compra.verde@ihobe.eus](mailto:compra.verde@ihobe.eus)

## EDUKIA

Dokumentu hau Ihoberen talde teknikoak egin du,  
Ecoinstitut SCCLren lankidetzarekin.

## DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Emilia Oleaga



Liburu honen edukiak, edizio honetan, lizentzia honekin argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported, Creative Commons-ena (informazio gehiago: [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)).

# AURKIBIDEA

1 SARRERA	2
2 EKOETIKETAK ETA HAIEN ERABILERA KONTRATAZIO PUBLIKOAN	3
2.1 Nola aurreikusten du Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ekoetiketen erabilera?	4
2.2 Zer dira, zehazki, ekoetiketak?	6
2.3 Nola eramaten dira alor praktikora?	9
2.4 Zer ekoetiketa dira erabilgarriagoak eta zergatik?	13
3 INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAK ETA HAIEN ERABILERA KONTRATAZIO PUBLIKOAN	23
3.1 Nola aurreikusten du kontratuen Legeak ingurumen-kudeaketako sistemen erabilera?	24
3.2 Zer dira ingurumen-kudeaketako sistemak?	26
3.3 Nola eramaten dira alor praktikora?	28
4 LABURBILDUZ...	31
ERANSKINA. INGURUMEN-IRIZPIDEAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN SARTZERAKOAN EGIN OHI DIREN OKERRAK	34

---

## GIDA HAU ERABILTZEKO GAKOAK




Legeria



Ondorioak



Gomendioak



Adibidea

# 1. Sarrera

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak (hemendik aurrera SPKL siglekin aipatuko dugu) hauxe ezartzen du bere lehenengo artikuluan:



## 1. Artikulua. Xedea eta zertarakoa

**3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitatea-prezioa erlazio hobe emango duela kontratu-prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobe ere funts publikoen erabileran.**

Artikulu hau sektore publikoan praktikara eraman ahal izateko, Ihobe – Eusko Jaurlaritzaren ingurumen jarduketarako sozietate publikotik ingurumen-irizpideak landu dira askotariko produktu, obra eta zerbitzuen (aurrerantzean, “produktuak” izenez aipatuko ditugu) erosketa eta kontrataziorako, baina oraindik ere produktu kategoria asko daude landu gabe.

Kontratazioan inplikaturako pertsona guztiak ez dira adituak ingurumen-gaietan. Horregatik, eta produktu kategoria jakin batzuetan ez denez irizpiderik garatu, ingurumen-irizpideak gure erosketa eta lizitazioetan sartu nahi ditugunean ingurumen-ziurtapenak dira eskura ditugun tresna erabilgarrienetako bat.

Ingurumen-ziurtapenek produktuen ingurumen-jokabideari buruzko informazioa ematen dute, eta baita enpresa eta erakundeei buruzkoa ere, eta horrek laguntzen digu ingurumen-aldagaia gure erosketa eta kontratazioetan sartzeko.

SPKLak berak haien erabilgarritasuna aitortzen du, zeren ingurumen-ziurtapenak jasotzen baititu espresuki, haien bi aldaeretan:

- ekoetiketak eta
- ingurumen-kudeaketako sistemak

Hala eta guztiz ere, oraindik ere zalantzak sortzen dira tresna horiek kontratazio publikoan modu egokian erabiltzearen inguruan.

**Gida honen helburua da argitzea nola erabili behar diren ekoetiketak eta ingurumen-kudeaketako sistemak kontratazio publikoan, euskal sektore publikoak segurtasunez erabili ahal izan ditzan tresna horiek.**

# 2

## **EKOETIKETAK ETA HAIEN ERABILERA KONTRATAZIO PUBLIKOAN**

# 2.1

## Nola aurreikusten du Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ekoetiketen erabilera?

SPKLak "Etiketen" erabilera jasotzen du 2. azpiatalean, hau da, administrazio-klausulen eta preskripzio teknikoaren agiriari buruzko azpiatalean.

SPKLaren arabera, preskripzio teknikoaren xedea da kontratatu beharreko produktutik eskatzen diren eta/edo lortu nahi diren ezaugarriak definitzea. Ezaugarri horiek produktuen bizi-ziklo osoaren edozein prozesutakoak izan daitezke, betiere kontratatzen denarekin lotuta badaude eta proportzionalak badira kontratatu beharreko objektuaren balio eta helburuekin (125. artikulua).

Horretarako, ekoetiketak erabil daitezke, 127. artikulua aurreikusten duen bezala. Izan ere, horren arabera:



### 127. Etiketak

2. Kontratazio-organoek ingurumen arloko [...] ezaugarri bereziak dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean, **berariazko etiketa bat eskatu ahalgo dute** preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, **obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa [...]**

Etiketa batek [...] kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen ditenean, kontratazio-organoek ez dute eskatuko etiketa, baina, haren ordez, **preskripzio teknikoak etiketa horretako zehaztapen xehean arabera definitzen ahalgo dituzte, edo, hala badagokio, haren zenbait zatiren arabera**, kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta objektu horren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

4. Kontratazio-organoek, baldintza-agirietan ez badute esaten obrek, hornidurek eta zerbitzuek eskatzen diren baldintza guztiak bete behar dituztela etiketa bat lortzeko, **adierazi beharko dute baldintza horietatik zeini buruz ari diren.**

5. Preskripzio teknikoetan etiketa jakin bat adierazi arren, kontratazio-organoak **baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu beharra dauka beti zer ezaugarri eta baldintza ezarri nahi dituen**, hau da, eskatutako etiketa zehatzarekin egiaztatu nahi diren ezaugarri eta baldintzak.

Gainera, honako hau ere ezartzen du:



3. Berariazko etiketa bat eskatzen duten kontratazio-organoek **onartu beharko dituzte** obrek, hornidurek edo zerbitzuek hura lortzeko eskatzen diren baldintzen **baliokideak diren** beste batzuk betetzen dituztela frogatzen duten **etiketa guztiak.**

[...] **beste frogabide egoki batzuk onartuko ditu**, 128. artikuluan aipatutakoak barne, kontratista izango denak eman beharreko obrek, hornidurek edo zerbitzuek berariaz eskatzen den etiketaren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko balio badute.

6. **Baliokidetasuna frogatzeko karga, nolnahi ere, hautagaiak edo lizitatuak hartuko dute beren gain beti.**





## 1. KOADROA.

### LEGEAREN ARTIKULU HORIETATIK HONAKO HAU ONDORIOZTATU DAITEKE:

- Agirietan ekoetiketak aipatu daitezke, dela preskripzio teknikoetan, dela adjudikazio-irizpideetan edo egikaritze-baldintzetan.
- Ekoetiketak aipatu arren, agiriek argi eta garbi zehaztu behar dute zer ezaugarri eta betekizun eskatzen zaizkien kontratatu beharreko produktuei.
- Betetzekoak diren ezaugarri eta betekizun horiek ekoetiketa jakin batean definitutako irizpide guztiak izan daitezke, edo horietako batzuk. Batzuetan, ekoetiketaren irizpide batzuk soilik zehazten dira, kontratuaren objektuarekin loturarik ez dutenak kanpo uzteko, edo, besterik gabe, beharrezkotzat jotzen ez delako horiek guztiak betetzea.
- Berez, ekoetiketa frogabide gisa eskatu daiteke, hau da, haren bidez frogatzeko produktuek bete egiten dituztela eskatutako edo baloratutako ezaugarri horiek, baina ezin eskatu daiteke berezko irizpide gisa.
- Beste etiketa edo egiaztapen-dokumentazio batzuk onartu behar dira, betiere lizitatzailak frogatzen badu eskatutako etiketaren baliokideak direla.



## Preskripzio teknikoa, adjudikazio-irizpidea edo egikaritze-baldintza berezia?

Nahiz eta Legeak onartzen duen ekoetiketen erabilera espezifikazio teknikoen, adjudikazio-irizpideen edo egikaritze-baldintza berezien definizioan, Legeak ez du definitzen zer kasutan den egokiagoa haren erabilera lizitazio bateko atal jakin batean. Gainerako irizpideak bezala, hori faktore batzuen mende dago. Orokorrean:

- Gomendatzen da ekoetiketak erabiltzea **preskripzio teknikoak** definitzeko, hau da, **derrigorrezko** betekizunak definitzeko, kasu hauetan: merkatuaren erantzute-ahalmena ezagutzen dugunean –badakigu lizitatzaila batzuek bete egin ditzaketela preskripzio horiek–, edota, administrazioaren eroste-ahalmenagatik, merkatua trakzionatzeko ahalmena dagoenean eta merkatu horrek eskatutakoari erantzun diezaiokeenean.
- Horren orde, **adjudikazio-irizpide edo baloratu daitezkeen irizpide bezala** sartzea gomendatzen da ez dakigunean norainoko ahalmena duen merkatuak gure eskariari erantzuteko, edo haren gaineko trakzio-ahalmenik ez dugunean. Baloratu daitezkeen irizpide bezala sartzean saihestu egiten da eskaintzarik gabe geratzeko arriskua, edo kanpo utzi behar izatea irizpidea ez betetzeagatik, berau derrigorrezkoa izanez gero.
- **Egikaritze-baldintza bereziak** gutxiagotan erabiltzen dira, zeren eta, kasu gehienetan, ekoetiketak erabiltzen baitira kontratatu nahi den obra, zerbitzu edo horniduraren ezaugarriak definitzeko, eta, hortaz, funtsezko betekizun teknikoak izaten dira, dela derrigorrezkoak (espezifikazioak), dela borondatezkoak (adjudikazio-irizpideak), eta ez baldintza erantsiak.

MEZULARITZA ZERBITZUA

# 2.2


## Zer dira, zehazki, ekoetiketak?

SPKLaren arabera, "etiketa" honako hau da: kasuko produktuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri. Baldintza horiek ingurumenekoak direnean, ekoetiketez edo ingurumen-ziurtapenez hitz egin dezakegu.

Ekoetiketak eta kontratazioan nola erabiltzen diren ondo ulertzeko, haien egitura ulertu behar dugu. Hainbat motatako ekoetiketa egon arren, orokorrean "ekoetiketa" batek hiru elementu izaten ditu:

- estandarra,
- ziurtapena eta
- etiketa edo logotipoa.

### 1. Estandarra



Ingurumen-ziurtapenen oinarria da.

Bertan definitzen dira produktuek bete behar dituzten irizpideen zerrenda espezifikoak –adibidez: material birziklatuaren ehunekoak, substantzia kaltegarri batzuk kanpo uztea, gehieneko kontsumo energetikoa– eta/edo produktuen inpaktua kalkulatzeko eta adierazteko erabili behar den prozedura.

*Nekazaritza ekologikoko estandarrek aipatutako lehenengo motakoak dira, zeren definitzen baituzte elikagaien ekoizpen eta transformazioan bete beharreko irizpide konkretuak.*

*Produktuaren ingurumen-adierazpenetarako estandarrek bigarren motakoak dira, hau da, produktuen ingurumen-inpaktua kalkulatzeko eta adierazteko prozedurak definitzen dituzte, bete beharreko gehieneko edo gutxieneko atalaserik definitu gabe.*

*Beste batzuk, hala nola Energy Star estandarra, aurreko bien nahasketak dira, zeren definitzen baituzte bai kalkulurako prozedura eta bai ziurtapena lortu ahal izateko errespetatu behar diren gehieneko atalaseak.*





## 2. Ziurtapena



Bigarren elementua ziurtapena da, hau da, produktuek estandarrean ezarritako baldintzak benetan betetzen dituztela berresten duten ebaluazioa eta egiaztapena.

Kasu positiboetan, normalean ziurtagiri bat ematen da, estandarra betetzen dela berresten duen abal moduan balio duena denbora-tarte jakin batez.

Hala eta guztiz ere, batzuk autoadierazpenak dira soilik –hau da, barneko egiaztapenak, batzuetan ziurtapen ofizialik ez dutenak–; beste batzuek, berriz, egiaztapen-ziurtagiria ematen duen hirugarren alderdi independente baten ziurtapena behar dute.

*Europar sailkapen energetikoaren etiketa bigarren motakoa izango litzateke, hau da, autoadierazpena; izan ere, fabrikatzailearen zeregin eta ardua da bere ekipoen kontsumoa kalkulatzeko eta gero dagokien etiketa jartzea, emaitzen arabera, kanpoko erakunde independente baten ziurtapena izan gabe.*

*EBko Etiketa Ekologikoa, aldiz, bai ezartzen du bere produktuak ziurtatu nahi dituen erakundetik kanpoko hirugarren alderdi independente batek ziurtatu egin behar duela estandarren betekizunak bete egiten direla.*

## 3. Etiketa edo logotipoa



Bukatzeko, ziurtapena lortu duten produktuak ziurtapen-sistemaren etiketa edo logotipoarekin markatu daitezke, estandarra bete egiten dela bistaratzeko.

Sistemak berak arautzen du ea etiketatzea derrigorrezkoa den eta nola erabili behar den, haren erabilera bidegabe edo iruzurrezkoa eragozteko.

*Hozkailuetan eta beste etxetresna elektriko batzuetan, derrigorrezkoa da europar sailkapen energetikoaren etiketa erakustea.*



*Garbiketa-produktuen kasuan, aldiz, EBko Etiketa Ekologikoa lortu duen produktu batek ez du horri dagokion logotipoa nahitaez erakutsi behar; erakutsi nahi badu, baina, estandarrean ezarritako erabilera-arauak bete behar ditu logotipoa bistaratzeko.*

# EKOETIKETA

Ekoetiketak baliagarriak dira preskripzio teknikoak definitzeko; izan ere, ekoetiketen estandarrek espezifikazio konkrituak eta/edo kalkulu-metodoak definitzen dituzte, kontratatu beharreko produktuen ingurumen-ezaugarriak definitzeari begira.

Ziurtagiriak egiaztatzen duenez ekoetiketaren estandarrean definitutako betekizunak betetzen direla, agirian eskatzen badira ekoetiketa batean definitutako ezaugarriak, ekoetiketa horren ziurtagiria baliagarria izango da ezaugarri horiek betetzen direla egiaztatzeko.

Ziurtagiriaren alternatiba gisa, produktuan edo bilgarrarian jarritako ekoetiketa edo logotipoa, edo fitxa teknikoa ere, baliagarriak izan daitezke betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, zeren haien erabilera mugatuta baitago kasuan kasuko estandarra betetzen duten produktuetara.



# 2.3

## Nola eramaten dira alor praktikora?

Orain, ekoetiketen elementuak hobeto ulertzen ditugunez, adibide batzuk aurkeztuko ditugu erakusteko nola sartu daitezkeen ekoetiketak kontratazio-agirietan, SPKLaren artikuluetatik aurretik ateratako jarraibideen arabera (1. Koadroa), jarraian laburbiltzen den bezala.



- Ekoetiketei erreferentzia egin arren, baldintza-agiriek argi eta garbi zehaztu behar dute zer ezaugarri eta baldintza bete behar dituzten kontratatu beharreko produktuek. Ekoetiketan definitutako baldintza guztiak izan daitezke, edo horietako batzuk.
- Zehaztutako ekoetiketa frogabidetzat har daiteke geroago, beraren bidez erakusteko produktuek bete egiten dituztela eskatutako edo baloratu beharreko ezaugarriak. Nolanahi ere, beste etiketa edo egiaztatze-dokumentazio batzuk ere onartu behar dira, baldin eta lizitatzailerak erakusten badu eskatutako etiketaren baliokideak direla.





## A. Adibidea. Ekoetiketa osoari buruzko erreferentzia

- 1** Hozkailu, sukalde eta garbigailuak babes publikoko eraikinetarako erosten direnean, eskatu daiteke horiek gutxienez A++ klasekoak izatea, europar sailkapen energetikoaren etiketaren arabera.
- 2** Frogabide gisa, proposatutako modeloen etiketa energetikoa aurkeztu beharko da.

Adibide honetan, klausulak argi eta garbi zehazten du zer baldintza bete behar den –gutxieneko efizientzia energetikoa, EBko ekoetiketa energetikoa zehazten duen moduan kalkulaturik eta adierazita–.

Etiketaren haur derrigorrezkoa den EBn saltzen diren etxetresna elektriko horientzat guztientzat, ekoetiketa edo hori islatzen duen informazio teknikoa izango da produkturako aurkeztu behar den dokumentazio bakarra.



## B. Adibidea. Ekoetiketa osoari buruzko erreferentzia

- 1** Ekitaldi baterako catering zerbitzu batean, eskatu daiteke kafea, tea, esnea eta zukuak nekazaritza ekologikokoak izatea, 834/2007 (EEE) Erregelamenduak edo geroagoko bertsiok definitzen duten moduan.
- 2** Frogabide gisa onartuko da erabili nahi diren produktuen zerrenda, produktu horien bilgarriaren irudiarekin. Hor agertu behar da EBko ekoizpen ekologikoaren logotipoa edo baldintzaren baliokidetasuna erakusten duen beste dokumentazio alternatiboren bat.
- 3** Gainera, egikaritze-baldintza berezi gisa, gaineratu daiteke ekitaldian informazioa eman beharko zaiela parte-hartzaileei zerbitzuan erabiltzen diren nekazaritza ekologikoko produktuei buruz.

Klausulak argi eta garbi zehazten du zein den bete beharreko baldintza –edari jakin batzuk EBk definitutako nekazaritza ekologikoko parametroen arabera ekoiztuta egon behar direla–, europar erregelamenduaren irizpide guztiak agirian kopia behar izan gabe.

Lizitatuak zerbitzu-entresak direnez, errazena da eskatzea erabiliko duten produktuen zerrenda aurkeztu dezatela, zehaztutako irizpidea betetzen dutela erakusten duen frogabide grafikoarekin batera, edozein egiaztatze-dokumentazio baliokidea ere onartuz.

Era horretan, ekoetiketarekin lotutako irizpidea ez da catering zerbitzuaren espezifikazio tekniko bat soilik, zeren eta, horrez gain, egikaritze-baldintza berezi batez osatzen da.





## C. Adibidea. Ekoetiketa batzuen osotasunari buruzko erreferentzia

- 1** *Inprimategi-zerbitzu batean, eskatu daiteke inprimaketarako paperak ezaugarri hauek izan ditzala: gutxienez % 50 baso-kudeaketa jasangarriko zur-zuntzez (eta/edo zur-zuntz birziklatuz) fabrikatuta egotea, FSC edo PEFC estandarrak edo horien baliokideak definitzen duen bezala.*
- 2** *Frogabide gisa, honako hauek onartuko dira: argitalpenerako eskainitako paperaren FSC edo PEFC zaintza-katearen ziurtagiriak; inprimategiaren zaintza-katearen ziurtagiriak, paper hori erabiltzeko konpromisoarekin; Europar Batasunaren paperaren etiketa ekologikoaren ziurtagiria, edo baldintzarekiko baliokidetasuna egiaztatzen duen bestelako dokumentazio bat.*
- 3** *Gainera, egikaritze-baldintza berezi gisa honako hau gehitu daiteke, produktuaren ingurumen-ezaugarriak komunikatzeko xedez: azken argitalpenak paperaren ezaugarriak aipatu behar dituela eta/edo barne sartu behar duela FSC, PEFC, etiketa ekologiko edo sistema baliokidearen logotipoa, horren bidez erakusteko paperak bete egiten dituela baso-kudeaketa jasangarriko (eta/edo birziklatuko) irizpideak, hots, baldintza-agirian definitutako irizpideak.*

Klausulak argi eta garbi zehazten du papera baso-kudeaketa jasangarriko zuntzez fabrikatuta egon behar dela, bi ingurumen-ziurtapenek –FSC edo PEFC– edo horien baliokideren batek definitzen duten bezala, irizpide guztiak agirian kopiatu behar izan gabe.

Ez du sistema horietako bat lehenesten, zeren kontsideratzen baita biak behar bezain zorrotzak eta baliagarriak direla baso-kudeaketa jasangarria egiaztatzeko.

FSC edo PEFC ziurtagiriez gain, EBko Etiketa Ekologikoak ere bermatzen du paperaren zuntzen gutxienez % 50 baso-kudeaketa jasangarrikoa (eta/edo birziklatua) dela; beraz, etiketa hori ere onartu behar da irizpide hori betetzen dela frogatzeko bide gisa.

Era horretan, ekoetiketa ez da paperaren espezifikazio teknikoak definitzeko soilik erabiltzen, baizik eta baita egikaritze-baldintza berezian ere.



## D. Adibidea. Ekoetiketaren zati bati buruzko erreferentzia

- 1** *Eraikinak garbitzeko zerbitzuen kontratu batean, baloratu daiteke erabilera arrunteko 4 garbiketa-produktuek –hau da, erabilera anitzeko garbikaria, lurzoruak garbitzekoa, kristalak garbitzekoa eta gainazal zeramikoak garbitzekoa– bete ditzatela substantzia kimikoen presentziaren irizpideak, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan edo horren baliokidean definitutakoaren arabera.*
- 2** *Frogabide gisa, honako hau aurkeztu daiteke: kontraturako proposatutako lau produktuetako EBko Etiketa Ekologikoa –produktu bakoitzari dagokiona–; produktu horien bilgarriaren irudia, EBko ekoetiketaren logotipoa erakusten duena; edo ekoetiketak definitutako baldintzak betetzen direla erakusten duen bestelako dokumentazioa.*

Kasu honetan, klausulak zehazten du zer baldintza eskatzen diren, EBko etiketa ekologikoaren zati bati erreferentzia eginez, eta ez etiketa osoari –zehazki, substantzia kimikoek garbiketa-produktuetan duten presentziari buruzko europar ekoetiketan definitutako irizpideak–. Era horretan, garbi geratzen da zer irizpide bete behar diren, agirian espresuki sartu behar izan gabe.

EBko Etiketa Ekologikoa borondatezkoa denez, eta kontuan hartuta bai ekoetiketaren ziurtagiriak eta bai beraren logotipoak –produktuan– irizpidea betetzen dela frogatzeko balio dezaketela, baldintza-agirian zehaztu daiteke bi elementu horiek onartzen direla. Nolanahi ere, legeak jasotzen duen bezala, bestelako egiaztapen-dokumentazio alternatiboa ere onartu behar da (adibidez: beste ekoetiketa bat), beti ere lizitatzailak erakusten badu dokumentazio hori eskatutako irizpideen baliokidea dela.



## E. Adibidea. Ekoetiketa batzuen zati bati buruzko erreferentzia

**1** *Modu alternatiboan, eraikinak garbitzeko zerbitzu honen kontratuan baloratu liteke erabilera arrunteko 4 produktuek bete ditzatela substantzia kimikoen presentziaren irizpideak, hots I. motako ekoetiketa batean –hala nola Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa, Zisne Nordikoa edo horien baliokidea–. definitutako irizpideak.*

**2** *Frogabide gisa, honako hau aurkeztu daiteke: I. motako ekoetiketa baten ziurtagiria; produktu horien bilgarriaren irudia, I. motako ekoetiketaren logotipoa erakusten duena; edo dokumentazio alternatibo baliokidea.*

Kasu honetan, klausulak I. motako<sup>1</sup> edozein ekoetiketatan definitutako substantzia kimikoen irizpideak onartzen ditu, eta ez Europako ekoetiketan definitutakoak soilik. Horrek ahalbidetzen du malgutasun handiagoa izatea erabili beharreko garbiketa-produktuetan, ingurumen-exijentzia maila berdina mantenduz; izan ere, I. motako ekoetiketak zorrotzak dira ingurumen aldetik, eta antzeko irizpideak ezartzen dituzte substantzia kimiko arriskutsuak garbiketa-produktuetatik kanpo uzteko edo haien presentzia mugatzeko.

Aurreko adibidean bezala, bai ekoetiketen ziurtagiriak eta bai haien logotipoak –produktuan jarrita– edo bestelako dokumentazio alternatibo baliagarriak izan daitezke irizpidea betetzen dela egiaztatzeko.



## F. Adibidea. Erreferentzia egiaztapenari buruzkoa da soilik

**1** *Bulegoko papera erosterakoan, honako hau eskatu daiteke:*

- % 100 birziklatua izatea, zuntzaren gutxienez % 85 kontsumo ostean birziklatua izanik.
- Inolako klororik ez duen prozesu batean zuritua izatea (TCF).
- Inprimaketa eta fotokopiatzerako egokitasun teknikoaren irizpideak betetzea, EN 12281 europar arauaren edo horren baliokidearen arabera.

**2** *Frogabide gisa, honako hau aurkeztuko da: eskainitako paperaren Aingeru Urdina ziurtagiria; paper horren bilgarriaren irudia, Aingeru Urdinaren logotipoarekin; edo egiaztapen-dokumentazio baliokidea.*

Adibide honetan erabaki da Aingeru Urdina ekoetiketan definitutako baldintzen zati bat baldintza-agirian zuzenean sartzea, behar bezain errazak eta zuzenak direlako.

Aurreko kasuan bezala, bai ziurtagiriak eta bai Aingeru Urdina alemaniar ekoetiketaren logotipoa baliagarriak izan daitezke egiaztapen gisa; horiez gain, baina, beste edozein egiaztapen-dokumentazio baliokide ere onartzen da.

<sup>1</sup> Ikus 2.4. atala, mota honetako etiketei buruzko informazio gehiago ikusteko.

BIDAIAK



# 2.4

## Zer ekoetiketa dira erabilgarriagoak eta zergatik?

Gaur egun, merkatuan hainbat motatako ekoetiketak daude, baina guztiak ez dira baliokideak eta ez digute ingurumen-informazio mota berdina ematen. Haien artean badira desberdintasun ugari, batez ere puntu hauei dagokienez:

- derrigorrezkoak edo borondatezkoak izatea,
- betekizun mota,
- betekizunak definitzeko era,
- haien irismena eta exijentzia maila,
- eta bete egiten direla ziurtatzeko forma.



Askotarikotasun hori kontuan hartuta, SPKLak ezartzen du bakarrik exijitu ahal izango direla ondoren adierazitako baldintzak betetzen dituzten ingurumen-etiketak (127,1. artikulua):

- Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik, eta egokiak izatea objektu hori osatzen duten obren, horniduren edo zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.\*
- [...] baldintzen oinarria objektiboki egiaztatzen ahal diren irizpideak izatea, diskriminatzaileak ez direnak.
- Etiketak prozedura ireki eta garden baten arabera hartzea, zeinetan zerikusia duten alderdi guztiek parte hartzen ahalko duten [...].
- Etiketak interesdun guztien eskura egotea.
- [...] baldintzak hirugarren batek jarriak izatea, hau da, enpresaburuak modu erabakigarrian ezin eragin diezaiokeen batek jarriak.
- Etiketei buruzko erreferentziak berrikuntza ez murriztea.

\* Kontratuaren objektuarekin lotuta ez dagoen irizpiderik egonez gero, ezin eskatu daiteke etiketa osoa, bazik eta objektuarekin zerikusia duten irizpideak soilik, 127.4. artikulua jaso eta 1. Koadroan islatzen den bezala.

Horregatik jakin behar da bereizten aukeran dauden ziurtagiri moten artean; izan ere, horri esker segurtatu daiteke SPKLaren baldintzak errespetatzen dituztenak erabiliko direla, hots, kontratazio publikorako erabilgarrienak direnak edo erabilera errazena dutenak.



## 2.4.1 Zer ekoetiketa dira erabiltzeko errazenak?

Ekoetiketa edo produktuaren ingurumen-ziurtapen guztien artean, honako hauek dira kontratazioan errazen erabiltzen direnak:

- I. Arauzko ekoetiketak
- II. Irizpide eta atalase espezifikoak dituzten borondatezko ekoetiketak

### I. ARAUZKO EKOETIKETAK

Arauzko ekoetiketak honelakoa izaten dira:

- Europako erregelamenduen edo araudi estatalen bidez araututa daude.
- Derrigorrezkoak dira, hau da, produktu guztiek izan behar dituzte.



#### HORREGATIK:

- Erraz erabiltzen dira, dela espezifikazio tekniko gisa dela adjudikazio-irizpide gisa.
- Lizitatuzaileek erraz aurkeztu ditzakete, araua betetzen dela frogatzeko bide gisa.

Ohikoenak honako hauek dira:

#### Arriskua adierazten duten piktogramak


Hauek adierazten dute ea produktu kimikoek substantzia arriskutsurik duten, haien arriskugarritasuna adieraztea eskatzen duten kontzentrazioetan.



#### Efizientzia energetikoaren etiketak

Hauek produktuen kontsumo energetikoaren maila eta haien efizientzia energetikoa adierazten dituzte (A eta G bitarteko eskala batean), gama bereko beste produktu batzuekin alderatuta; halaber, informazioa ematen dute ur kontsumoari, zarataren sorrerari edo beste datu batzuei buruz, produktuaren arabera.

Etiketatzeko energetikoa behar duten ekipoen zerrenda osoa [hemen](#) kontsulta daiteke ("etiketatze energetikoa behar duten produktuak").



#### Turismo-ibilgailuen eta furgoneten kontsumo eta CO<sub>2</sub> emisioen etiketa

Etiketa honek adierazten ditu ibilgailu mota bakoitzaren batez besteko kontsumoak eta ibilgailuen CO<sub>2</sub> emisioak.

Entodos los puntos de venta puede obtenerse gratuitamente una guía sobre el consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub>, en la que figuran los datos de todos los modelos de automóviles de turismo nuevos.

Marca/modelo:

Tipo de carburante:

CONSUMO OFICIAL (SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)	
Tipo de conducción	l/100 km
En ciudad	
En carretera	
Media ponderada	

EMISIONES ESPECÍFICAS OFICIALES DE CO<sub>2</sub>  
(SEGÚN LO DISPUESTO EN LA DIRECTIVA 80/1268/CEE)

g/km

El consumo de combustible y las emisiones de CO<sub>2</sub> no sólo dependen del rendimiento del vehículo; también influyen el comportamiento al volante y otros factores no técnicos. El CO<sub>2</sub> es el principal gas de efecto invernadero responsable del calentamiento del planeta.

Ondorengo adibidean ikus daiteke nola erabili diren etiketa horiek Ihobe sozietate publikoak garatutako baldintza-agiri konkretuetan edo erosketa publiko berderako irizpideetan:



#### Ibilgailuen leasing/rentingerako irizpideak

*Pneumatikoen aldaketetan, ibilgailuak efizientzia energetikoaren "A" klaseko eta zarata emisio "txikiko" pneumatikoz hornituko dira, pneumatikoen etiketatzeari buruzko 1222/2009 (EE) Erregelamenduaren arabera.*

Egiatzapen-dokumentazio gisa, honako hau eskatu daiteke: ordezko pneumatikoen zerrenda aurkeztea kontratuan sartutako ibilgailuetarako, haien efizientzia energetikoaren etiketekin batera.



## II. BORONDATEZKO EKOETIKETAK IRIZPIDE ETA ATALASE ESPEZIFIKOekin

Multzo honetan, honako etiketa hauek aurkitzen ditugu: I. motako ekoetiketak, ISO 14024ren arabera; eta ziurtapena lortu ahal izateko errespetatu behar diren irizpide konkretuak eta atalaseak definitzeagatik –beste arrazoi batzuen artean– I. motakoen antzekotzat jotzen diren beste ekoetiketa batzuk.

### I. motako ekoetiketak, ISO 14024ren arabera

Ekoetiketa hauek betetzen dituzte ISO 14024 nazioarteko arauak ingurumen-etiketatzeari buruz ezarrita dituen betekizunak; arau horrek definitzen ditu ekoetiketak gidatu behar dituzten printzipioak, irizpideak definitzeko prozesua, haien irismena eta egiztapen-prozedura, besteak beste.

I. motako ekoetiketen ezaugarriak honako hauek dira:

- Oso zorrotzak dira ingurumen aldetik. Orokorrean, saiatzeko merkatuaren % 20 soilik izatea ezarritako irizpideak betetzeko gai.
- Produktuen ingurumen-inpaktu nagusiei buruzko irizpide espezifikoak eta helburuak bete daitezela eskatzen dute, produktuen bizi-ziklo osoan.
- Sistema sinesgarriak dira. Besteak beste, ezartzen dute irizpideak definitzeko prozesuan interesdun guztiak kontsultatu behar dela eta irizpideen betearazpenaren egiaztapena hirugarren alderdi independente batek egin behar duela.
- Batez ere gobernu nazionalak edo eskualdeetako gobernuak sustatzen dituzte, eta modu independentean kudeatzen dira.
- SPKLaren irizpideak betetzen dituzte: objektibotasuna, gardentasuna, independentzia, irisgarritasuna, eta berrikuntza ez murriztea.



#### HORREGATIK:

- Kontratazio publikoan erabil daitezke, normalean espezifikazio tekniko edo adjudikazio-irizpide gisa.
- Kasu gehienetan, osorik eskatu daitezke, hau da, ezartzen dituzten baldintza guztiak bete daitezela.
- Baina klausula konkretuak definitzeko ere erabil daitezke, ez bada eskatu nahi irizpide guztien betearazpena, horren bidez eskaintza gutxiago murrizteko.
- Bi kasuetan, lizitatuzaileek ekoetiketaren ziurtagiria edo logotipoa aurkeztu dezakete, betekizunak betetzen direla egiaztatzeko bide gisa.

Administrazioak gehien kontratatzen dituen produktuetarako gure merkatuan ohikoenak diren I. motako etiketak Europako etiketak dira, batez ere honako hauek:

#### EBko Etiketa Ekologikoa



#### Aingeru Urdina



#### Beltxarga Nordikoa



#### TCO Development (ekipo elektronikoak)



Ekoetiketa horiek ziurtatutako produktu ugari dituzte, baina badaude beste batzuk, gehienak Global Ecolabeling Network (GEN) sarekoak. GENeko kideen zerrenda [hemen](#) kontsulta daiteke. miembros de la Global Ecolabeling Network (GEN).

TEXTIL ARLOKO OSAGARRIAK

BIDE-GARBIKETA ETA HONDAKIN-BILKETA

Jarraian ikus daiteke nola erabili diren lhobek argitaratutako baldintza-agiri konkretuetan edo erosketa berderako irizpideetan:



## Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio zentralaren fotokopiagailuak erosteko esparru-akordioa

Espediente zenbakia: 2017/006/074/07

*Aingeru Urdina ekoetiketan oinarrituta lhobek inprimatze-ekipoetarako landu dituen erosketa berderako irizpideetatik abiatuta, agirietan Bizkaiko Foru Aldundiak zehazten du inprimatze-ekipoek irizpide hauek bete behar dituztela, beste batzuen artean:*

- *Funtzionatzen dutenean, ekipoek ez dute gainditu behar 67,8, 74,8 eta 70 dB(A) LWAd zarata maila, ekipo motaren arabera. ISO 7779:2010 arauaren arabera kalkulatuta eta ISO 9296:1988 arauaren edo horren baliokidearen arabera adierazita, makinari dagokionez (osagarririk gabe).*
- *Aingeru Urdina ekoetiketan edo horren baliokidean definitutako prozeduraren arabera, inprimatze- eta prestatze-faseetako emisio mailak (mg/ordu) ezin izango dira hauek baino handiagoak izan: KOLT:10; Bentzenoa <0,05; Estirenoa: 1,0; Ozonoa: 1,5; Hautsa: 4,0.*

Egiaztapen-dokumentazio gisa, eskainitako produktuen Aingeru Urdina ekoetiketaren ziurtagiria aurkezteko eskatu daiteke, horrek bi irizpideak betetzen direla bermatzen baitu, edota laborategiko testak edo irizpideak betetzen direla egiaztatzen duen beste dokumentazioaren bat.




## Eraikinetako garbiketa-zerbitzuak Donostiako Udalarentzat

Espediente zenbakia: 65/2016

*Eraikinen garbiketarako lhobek landu dituen erosketa berdeko irizpideak erreferentziatzen hartuta, Donostiako udalak ingurumen-irizpide hauek sartu ditu baldintza-agirian, beste batzuen artean:*

- *Komuneko papera eta eskuak lehortzeko papera % 100 birziklatua eta guztiz kloro gabea izan behar da, eta I. motako ekoetiketa baten irizpideak bete behar ditu, hala nola Aingeru Urdina, Zisne Nordikoa, EBko Etiketa ekologikoa edo horien baliokidea, konposatu kimikoek produktuaren formulazioan duten presentziari dagokionez.*
- *Eskainitako eskurako xaboiak ez du izan behar ez koloragarririk, ez lurrinik eta ezta desinfekzio-agenterik ere, eta I. motako ekoetiketa (adibidez: Zisne Nordikoa) baten irizpideak bete behar ditu konposatu kimikoek produktuaren formulazioan duten presentziari dagokionez.*

Egiaztapen-dokumentazio gisa, eska daiteke lizitatzailerak aurkeztu dezala kontratua gauzatzean erabiliko/hornituko dituen produktuen zerrenda; horrekin batera, gainera, produktu horien ekoetiketen ziurtagiriak aurkeztu behar ditu, edo produktuari dagokion ekoetiketaren logotipoa erakusten duen irudi grafikoa edo egokitzen josten den beste egiaztapen-dokumentazioaren bat.





## Inprimatu gabeko gutun-azal eta poltsak hornitzea Eusko Jaurlaritzari (Ogasun eta Finantza Saila)

Espediente zenbakia: KM/2017/007

*Ihobek papererako landu dituen erosketa berdeko irizpideetatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak honako hau eskatzen du kontratazio-agirian gutun-azaletarako:*

- Zuntz birjinaz fabrikatutako paperez egindakoak izatea, eta zuntz hori baso-ustiategi jasangarrietatik eta/edo birziklatuetatik etortzea (gutxienez % 70). Baldintza horien egiaztapena egingo da Aingeru Urdina ekoetiketa, FSC, PEFC edo irizpide hori bermatzen duen beste edozein dokumentu aurkeztearen bitartez.

### I. Motakoaren antzekoak diren beste etiketa batzuk

I. motako ekoetiketaz gain, badira horien antzekoak diren "ingurumen-lidergoko" beste ziurtapen batzuk; antzekotasun horren arrazoiak honako hauek dira:

- Irizpide espezifikoak eta bete beharreko helburuak ezartzen dituzte, ziurtapena lortu ahal izateko.
- SPKLaren irizpideak betetzen dituzte euren definizioan, hau da, objektibotasuna, gardentasuna, independentzia, irisgarritasuna, eta berrikuntza ez murriztea, sinesgarritasun-estandar zorrotzei jarraituz, hau da, interesdun guztiekin kontsultatu behar da irizpideak definitzeko prozesuan, eta ziurtapena hirugarren alderdi independente batek egin behar du.

Normalean, I. motako etiketekin dituzten desberdintasunak honako hauek izaten dira:

- Sektore espezifikoetan zentratzen dira (nekazaritza, zura,...), edo bizi-zikloaren fase bateko inpaktuetan (normalean, ekoizpena edo erabilera) eta/edo inpaktu nagusi batean (energia kontsumoa, ur kontsumoa...).
- Bai gobernuek eta bai gizarte zibilak sustatu ohi dituzte.



#### HORREGATIK:

- Kontratazio publikoan erabil daitezke, normalean espezifikazio tekniko gisa edo adjudikazio-irizpide gisa.
- Orokorrean, osorik eska daitezke, batez ere lehengaien ekoizpen-prozesuetan (zura, elikagaiak...) edo irizpide bakar batean zentratutakoetan.
- Baina espezifikazio konkretuak definitzeko ere balio dezakete, haren irizpide guztien betearazpena eskatu nahi ez bada.
- Bi kasuetan, lizitatzailleek ekoetiketaren ziurtagiria edo logotipoa aurkeztu ahal izango dute, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko bide gisa.



Gure merkaturan, I. motako enbakoak diren ekoetiketa ohikoak (I. erdimotako ekoetiketak ere deitzen zaie) honako hauek dira, sektorez sektore:



Ekoetiketa horietako batzuk ekimen sozial edo industrialetatik sortu direnez, ebaluatu behar da ea SPKLaren aurre-baldintzak betetzen ote dituzten, erosketa eta kontratazio publikoan erabili ahal izateko. Adibidez, ISEAL Aliantzako kideek kudeatzen dituzten ziurtagiriak ISO 14024an definitutako enbako jardunbide egokien estandarrak bete behar dituzte, SPKLaren baldintzen ildotik. ISEALeko kideen zerrenda [hemen](#) kontsulta daiteke.

Jarraian ikus daiteke, adibide batzuetan, nola erabiltzen diren etiketa horiek lhobek landutako baldintza-agiri konkretuetan edo erosketa berdeko irizpideetan.



## Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio zentralaren fotokopiagailuak erosteko esparru-akordioa

Espediente zenbakia: 2017/006/074/07

*Lehen aipatutako agirian, honako hau ere eskatzen da:*

- Ekipoek bete behar dituzte Energy Star edo haren baliokide baten kontsumo energetikoko baldintzak. TEC balioa honako hau izango da asteen: 1,80 kWh edo gutxiago.

Irizpidea egiaztatzeko, eska daiteke Energy Stararen ziurtagiria aurkeztu dadila proposatutako ekipo bakoitzerako, ekoetiketaren webguneko informazioarekin edo produktuaren fitxa teknikoarekin, non espezifikoki jasotzen baita ekipoen TEC balioa, Energy Stararen arabera kalkulatuta; halaber, gisa bereko beste dokumentazio baliokide bat eska daiteke.





## Arropa laua, jantziak eta uniformeak hornitzea Osakidetzaren Erakunde Sanitarioei

Espediente zenbakia: G/122/20/1/1568/OSC1/0000/112018

*Ihobek ehungintzako produktueterako landu dituen erosketa berdeko irizpideetatik abiatuta, Osakidetzak I. motakoen antzeko ekoetiketak erabiltzen ditu, eta honako adjudikazio-irizpide hauek zehazten ditu 1. lotean –oheko arropa– eta 3. lotean –pertsoneko eta pazienteentzako jantziak–:*

- Formaldehidoen emisioak 75 pmm edo 300 ppm baino txikiagoak izatea (artikuluaren arabera), EN ISO 14184-1:2001 edo beraren baliokidearen arabera.
- Azken produktuan dauden substantzien irizpideak betetzen dituzten produktuen ehunekoak, 100 Oeko-tex® estandarrean edo horren baliokidean definitutakoaren arabera.
- Birziklatuak diren eta/edo nekazaritza ekologikotik datozen zuntz edo elementuen batez besteko ehunekoak, estandar hauen arabera neurtua: Europar Batasunak nekazaritza ekologikorako ezarritako estandarrak, AEBetako programa nazionala (NOP-USDA), IFOAM nazioarteko erakundea edo horien baliokideak.

Lehenengo bi irizpideak egiaztatzeko dokumentazio gisa, honako hau aurkeztu dadila eskatu daiteke: 100 Oeko-tex® ekoetiketa, lizitatuak proposatutako artikulueterako (izan ere, 100 Oeko-tex® ekoetiketak bermatzen du bi baldintzak betetzen direla) edo bi irizpideak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazio teknikoa.

Bigarren irizpiderako, berriz, GOTS ekoetiketaren ziurtagiriak onar daitezke (nekazaritza ekologiko zuntzaren edukiari dagokionez) edo Textile Exchange ekoetiketarenak (nekazaritza ekologiko zuntz-educirako eta zuntz birziklatuzko educirako), proposatutako artikulu bakoitzaren ehunekoari buruzko dokumentazioarekin batera. Gainera, bestelako egiaztapen-dokumentazioa ere onartu behar da.



## Debarreneneko ESiko Mendaroko Ospitaleko elikadura zerbitzua

Espediente zenbakia: G/208/20/1/1109/O371/0000/062019

*Ihobek jantoki-zerbitzuetarako erosketa berdeari buruz landu dituen irizpideak abiapuntutzat hartuta, Osakidetzak I. motakoen antzekoak diren borondatezko ekoetiketak erabiltzen ditu elikagaietarako, eta honako hau zehazten du:*

- Produktuen gutxienez % 5, pisutan neurtuta (bai animalia-jatorrikoak eta bai landare-jatorrikoak), nekazaritza ekologikoa izango da, 834/2007 (EE) Erregelamenduaren edo horren ostekoaren arabera.
- Baloratuko da enpresa konprometitzea ekoizpen integratuko irizpideak -Euskolabel edo horren baliokidea- betetzen dituzten produktu jasangarrien ehuneko handiagoa erabiltzera, pisutan neurtuta; edo Euskolabelen edo horren baliokidean definitutako animalia-ongizateko estandarrak betetzen dituztenak; edo MSC, ASC, Euskolabel edo horien baliokideek arrantza/akuikultura jasangarriko estandarrak betetzen dituztenak.

Hori egiaztatzeko, lizitatuak asteko menu estandar bat aurkeztu behar dute, plater bakoitzerako honako hau adieraziz: osagaiak, gramoak, enpresa hornitzailea eta betetzen duten ingurumen-irizpidea (ekoizpen integratua, animalia-ongizatea edo arrantza/akuikultura jasangarria); horrekin batera, proposatutako ekoizle edo produktuei dagozkien ekoetiketen ziurtagiriak ere aurkeztu behar dituzte.



## 2.4.2 este ekoetiketa edo ziurtapen mota batzuk

Orain arte aurkeztutako ekoetiketez gain, merkatuan badira beste ekoetiketa edo ingurumen-ziurtapen mota batzuk, gaur egun ezin erabil daitezkeenak modu hain zuzenekoan kontratazio publikoan. Honako hauek dira:

- III. Ingurumen-autoadierazpenak (ISO 14021 arauaren arabera)
- IV. Produktuaren ingurumen-adierazpenak (ISO 14025 arauaren arabera)

### III. INGURUMEN-AUTOADIERAZPENAK

Hona hemen zer diren ingurumen-autoadierazpenak:

- Enpresek berek euren produktuen ingurumen-ezaugarriez egindako adierazpenak, hau da, gehienbat informatiboak dira.
- Enpresak berak ezarritako zigiluak edo logotipoak eraman ohi dituzte.
- Normalean, ingurumen-ezaugarri batean zentratzen dira (birziklatutako edukia; substantzia kaltegarri batzuk ez edukitzea, eta abar), baina exhaustiboak ere izan daitezke.
- ISO 14021ek ezartzen du zer kalitate-ezaugarri bete behar dituzten autoadierazpenek: zehatzak izatea, egiaztatzeko modukoak, ez izatea engainagarriak, esanguratsuak izatea, eta abar, baina ez du ziurtapen independenterik eskatzen.




#### HORREGATIK:

- Kontratazio publikoan duten erabilgarritasun bakarra da kontratuaren preskripzio batzuk betetzen direla frogatzeko balio dutela, betiere preskripzio horietan eskatutako informazio espezifikoak modu garbian jasotzen badute.

Ingurumen-informazioa duten autoadierazpenen adibide batzuk honako hauek dira:




Papera zurrizko prozesuan kloro elementalik erabili ez dela egiaztatzeko balio dezake (Elementary Chlorine Free)



Produktuaren % 65raino material birziklatuz fabrikatuta dagoela egiaztatzeko balio dezake



Egiaztapen gisa balio dezake CFCrik gabeko produktuak eskatzen direnean



## IV. PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENAK

Produktuaren ingurumen-adierazpenak –PIA edo EDP (ingelesez) siglekin laburtuta– produktuaren ingurumen-adierazpenei buruzko ISO 14025 nazioarteko arauan ezarritako baldintza eta printzipioen arabera bideratzen dira, edo, eraikuntzako produktu eta zerbitzuen kasuan, EN 15804 arauan ezarritakoen arabera.

Honako ezaugarri hauek dituzte:

- Produktu jakin baten ingurumen-inpaktu kuantitatiboak aurkezten dituzte, modu estandarizatuan (honako aldagai hauetarako: klima-aldaketako potentziala, eutrofizazioa, eta abar.).
- Inpaktu horiek kuantifikatzen dituzte, bizi-zikloaren azterketa (BZA) batean oinarrituta, ziurtapen-sistemek (I. motako ekoetiketen estandarren baliokideak) produktu kategoría bakoitzerako ezarrita dituzten arauen arabera.
- Arau horiek ezartzeko helburua da bizi-zikloaren azterketak homogeneousatzea eta alderagarritasuna ahalbidetzea. Nolanahi ere, ziurtapen-sistema desberdinen arabera landutako PIAk ez dira berez alderagarriak, zeren haien arauak desberdinak baitira.
- I. motako ekoetiketek bezala, PIAek arauak ezartzen dituzte kategoría bakoitzerako, alderdi interesatuen parte-hartzearekin, publikoak dira, erakunde independenteek bideratzen dituzte eta emaitzen berrazterketa independentea eskatzen dute.

Nolanahi ere, I. motako ekoetiketen aldean desberdintasun hauek dituzte:


- Ez dute ingurumen-ezaugarri konkreturik ezartzen, ezta gehieneko inpaktu-atalaserik ere, zeren ingurumen-datuak aurkeztu baino ez baitute egiten.

Adibidez, ondorengo taulak erakusten digu nola aurkezten diren emaitzak:

### Adibidea. Zurezko kanpo-leihoak

Zuhaizki 68 leihoaren PIA, Zuhaizki SL, Leaburu, Gipuzkoa (ikus PIA osoa [hemen](#))

INGURUMEN-PROFILA	Lehengaiak [A1]	Garraioa [A2]	Fabrikazioa [A3]	GUZTIRA
Berokuntza globala (100 urte) [kg CO <sub>2</sub> bal.]	8,03E+01	2,46E+00	2,62E+01	1,09E+02
Karbono biltegitratzea [kg CO <sub>2</sub> bal.]	-3,03E+01	0,00E+00	0,00E+01	-3,03E+01
Ozono-geruzaren suntsipena [kg CFC-11 bal.]	8,61E-06	4,46E-07	3,55E-06	1,26E-05
Azidifikazioa [kg SO <sub>2</sub> bal.]	6,53E-01	5,96E-03	1,75E-01	8,43E-01
Eutrofizazioa [kg PO <sub>4</sub> <sup>3-</sup> bal.]	1,26E-01	1,29E-03	3,49E-02	1,62E-01
Oxidazio fotokimikoa [kg C <sub>2</sub> H <sub>4</sub> bal.]	3,07E-02	3,83E-04	7,15E-03	3,83E-02
Baliabide abiotikoen agorpena (elementuak)[kg Sb bal.]	3,63E-04	9,81E-06	3,85E-05	4,11E-04
Baliabide abiotikoen agorpena (fossilak) [MJ]	9,75E+02	3,86E+01	3,18E+02	1,33E+03
Hondakin arriskutsuak [kg]	1,91E-03	1,46E-03	2,40E-05	3,40E-03
Hondakin ez-arriskutsuak [kg]	1,81E+01	1,56E+01	1,44E+00	3,52E+01
Hondakin erradioaktiboak [kg]	7,37E-03	3,89E-03	2,56E-04	1,15E-02
Energia primario berriztagarriaren erabilera, lehengai gisa erabilitako energia primario berriztagarria kanpo utzita [Mj]	8,59E+02	5,42E-01	9,08E+01	9,50E+02
Lehengai gisa erabilitako energia primario berriztagarria [Mj]	3,56E+02	0,00E+00	0,00E+00	3,56E+02
Energia primario berriztagarriaren baliabideen osoko erabilera [Mj]	1,21E+03	5,42E-01	9,08E+01	1,31E+03
Energia primario ez-berriztagarriaren erabilera, lehengai gisa erabilitako energia primario ez-berriztagarria kanpo utzita [Mj]	7,80E+02	9,22E+00	5,11E+02	1,30E+03
Lehengai gisa erabilitako energia primario ez-berriztagarria [Mj]	1,22E+01	0,00E+00	0,00E+00	1,22E+01
Energia primario ez-berriztagarriaren baliabideen osoko erabilera [Mj]	7,93E+02	9,22E+00	5,11E+02	1,31E+03
Material sekundarioen erabilera [Mj]	0,00E+00	0,00E+00	0,00E+00	0,00E+00
Erregai sekundario berriztagarrien erabilera [Mj]	0,00E+00	0,00E+00	5,63E+01	5,63E+01
Erregai sekundario ez-berriztagarrien erabilera [Mj]	0,00E+00	0,00E+00	0,00E+00	0,00E+00
Uraren erabilera [m <sup>3</sup> ]	5,89E-03	5,89E-03	1,66E-05	1,17E-02







### HORREGATIK:

- SPKlan definitutako baldintzak bete arren, eta produktu kategoria batzuetarako tresna hau gero eta gehiago erabiltzen ari bada ere, ingurumen-komunikazioko tresna gisa, oraindik ere erabilera mugatua dute lizitazioetan.
- Ez dute ahalbidetzen produktuen ezaugarri konkreturik definitzea, ezta produktu jakin bat merkatuko batez bestekoa baino ekologikoagoa den erabakitzea ahalbidetzen duen atalaserik ere.
- Ezinezkoa da ziurtapen-sistema desberdinen adierazpenak alderatzea, zeren irismen eta informazio-iturri desberdinak definitu baititzakete.
- Orokorrean, oraindik ere ez dago sistema berberaren masa kritiko nahikorik kontratazioan modu praktikoan erabiltzeko.
- Gainera, gutxieneko ezagutza espezializatua eskatzen dute emaitzak interpretatzeko eta ingurumenak baloratzeko.

Hona hemen gaur egun existitzen diren produktuaren ingurumen-adierazpenen sistema batzuk:

#### International EPD® System



#### Aenor-en GloblEPD



#### Eraikuntzako DAP programa





# 3

## **INGURUMEN- KUDEAKETAKO SYSTEMAK ETA HAIEN ERABILERA KONTRATAZIO PUBLIKOAN**

# 3.1

## Nola aurreikusten du kontratuen Legeak ingurumen-kudeaketako sistemen erabilera?

SPKLak kaudimenari buruzko 3. azpiatalean jasotzen ditu ingurumen-kudeaketako sistemak, eta, zehazki, kaudimen tekniko edo profesionalari buruzko artikuluetan: 88. artikulua, obren kontratuei buruzkoa; eta 90. artikulua, zerbitzuei buruzkoa<sup>2</sup>. Bi artikuluek modu oso antzekoan zehazten dute honako hau:



### 88. Artikulua. Kaudimen tekniko obra-kontratuetan

[...] enpresaburuaren kaudimen tekniko ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

- [...] Egokia den kasuetan, enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko adierazpena.

Ingurumen-kudeaketako neurriak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez, SPKLak honako hau zehazten du:



### 94. Artikulua. Ingurumena kudeatzeko arauak betetzen direla egiaztatzea

Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, kontratazio-organoek eskatzen dutenean organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkez daitezela kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzeko bitarteko gisa, haien bidez egiaztatzeko lizitatzailleak bete egiten dituela ingurumena kudeatzeko zenbait arau, hauetako bat **aipatuko da**: Batasunaren Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritzako sistema (**EMAS**), edo **ingurumena kudeatzeko onetsitako beste sistema batzuk [EMAS araudiak zehazten duen bezala]**, edo **ingurumena kudeatzeko bestelako arauak**, onetsitako organismoek **alor horretan emandako Europako zein nazioarteko arauetan oinarritutakoak**.

[...] eta **halaber onartuko dituzte neurri baliokideen bestelako frogak** [...] baldin eta lizitatzailleak demostratzen badu neurri horiek eta aplikatzekoa den ingurumena kudeatzeko sistemaren edo arauaren arabera eskatzekoak baliokideak direla.

<sup>2</sup> Eta, hortaz, zerbitzuen kontratuen kaudimen-irizpide berdinegatik arautzen diren gainerako kontratuetan ere (91. artikulua).

ERAIKUNTZA-OBREN  
INGURATZAILAK



## 2. KOADROA. ARTIKULU HORIETATIK HONAKO HAU ONDORIOZTATU DAITEKE:

- Lizitazioetan, kaudimen tekniko edo profesional gisa eska daiteke lizitatzailleek adieraz dezatela zer ingurumen-kudeaketako neurri aplikatu ahal izango dituzten kontratua egikaritzean.
- Hori mota guztietako kontratuetan eska daiteke, horniduren kontratuetan izan ezik, betiere egokitzat jotzen bada kontratuaren objektuaren arabera eta kontratua egikaritzeko aurreikusten diren zereginen arabera.
- Haren egiaztapenerako, exijitu daiteke erakunde independenteek emandako ziurtagiriak aurkeztu daitezela, hots, ingurumen-kudeaketako sistema bat badutela frogatzen duten ziurtagiriak. Sistema hori EMASen arabera izan daiteke, EMASen araudian aitortutako besteren bat, edo Europako edo nazioarteko beste arauen baten arabera –adibidez: ISO 14001– aitortutakoren bat.
- Baina beste dokumentazio egoki bat ere onartu beharko da, baldin eta lizitatzailleak erakusten badu exijitutako sistemaren baliokidea dela.



## Noiz da egokia eskatzea ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzeko gaitasuna?

Kaudimenean eskatu nahi bada enpresek adieraz dezatela zer ingurumen-kudeaketako neurri aplikatu ahal izango dituzten kontratua egikaritzean, hori justifikatzeko beharrezkoa da egikaritze horretan enpresa adjudikaziodunak gauzatu ditzala ingurumen-inpaktu negatiboak sor ditzaketen zereginak, hots, ingurumen-kudeaketa eskatzen duten zereginak. Gainera, baldintza-agiriak ingurumen-kudeaketako jarduerak jaso beharko ditu, espezifikazio teknikoetan eta/edo egikaritze-baldintza berezietan, eta lizitatzailleek frogatu beharko dute badutela gaitasun tekniko eta profesionala jarduera horiek gauzatzeko.

Kaudimena baliagarria da frogatzeko lizitatzailleek badutela gaitasuna lizitazioan aurreikusitako zereginak gauzatzeko. Beraz, baldintza-agiriekin ez badute inolako ingurumen-kudeaketako neurriak sartzen kontratuak dirauen bitartean aplikatzeko, orduan ez litzateke eskatu behar horren inguruko kaudimena frogatzea.

Beste alde batetik, kaudimen-irizpideak ezinbesteko baldintzak dira, eta, hortaz, betetzen ez dituzten lizitatzailleak lizitaziotik kanpo geratzen dira. Horregatik, kaudimenean ingurumen-kudeaketako neurriak sartu baino lehen, merkatu potentzialaren ezaugarriak ezagutu beharko ditugu, eta jakin beharko dugu ea merkatu hori prestatuta dagoen irizpide horiek betetzeko. Hau da, ea enpresa nahikorik dagoen ingurumen-kudeaketako sistema inplementatuekin, horren bidez bermatzeko lizitazioa ez dela esleitu gabe geratilp edo behar baino enpresa gutxiago aurkeztuko ez direla. Hori bereziki garrantzitsua da lizitatzaille potentzialak ETEak badira.





# 3.2


## Zer dira ingurumen-kudeaketako sistemak?

Ingurumen-kudeaketako sistemak (IKS) borondatezko tresnak dira, erakundeek implementatu ditzaketenak ingurumen-aldagaia euren funtzionamendu orokorrean integratzeko eta euren ingurumen-jokabide globala hobetzeko, legeko betebeharretatik harago.

Sistema hauek hobekuntza etengabeko ikuspegi bati jarraitu ohi diote, eskema honen arabera: "Planifikatu, Egin, Egiaztatu eta Jardun".



Ingurumen-ziurtapenekin gertatzen den bezala, IKSein ere badira ziurtapen-eskemak, honako hau definitzen dutenak:



Orokorrean, IKSaren ziurtapen-eskema nagusiak honako hauek dira:

### EMAS

Batasunaren  
Ingurumen Kudeaketa  
eta Ikuskaritzako  
Sistema




### ISO 14001

Ingurumen  
Kudeaketaren  
Nazioarteko Sistema



Ingurumen-ziurtapenak ez bezala, IKSak ez dira zentratzen erakundeak berak fabrikatu ditzakeen produktuetan, baizik eta haren operazioetan, orokorrean. Horrenbestez, IKS ziurtatuak baliagarriak dira honako hau frogatzeko: erakundeak ebaluatu egin dituela bere jardunaren inaktuak; hobekuntzarako helburuak definitu dituela eta bere jardunak sortzen dituen ingurumen-inaktuak murrizteko neurri eta prozedurak inplementatu dituela; eta badituela jarraipen-mekanismo egokiak funtzionamendu ona eta ezarritako helburuen lorpena segurtatzeko.

Erakundeek instalazio edo eraikin bat baino gehiago izan ditzaketenez, eta baita jarduera ekonomiko bat baino gehiago ere, eurek erabaki dezakete ea IKSa instalazio eta jarduera guztiei edo parte bati soilik aplikatzen dieten.



# 3.3

## Nola eramaten dira alor praktikora?

Orain, ingurumen-kudeaketako sistemak hobeto ulertzen ditugunez, ikus dezagun nola sartu daitezkeen kontratazio-agirietan SPKLtik ateratako kontsignetan oinarrituta (2. Koadroa):



- Kasu egokietan, kaudimen tekniko edo profesional gisa eska daiteke lizitatzailleek adieraz dezatela zer ingurumen-kudeaketako neurri aplikatu ahal izango dituzten kontratua egikaritzean, baldintza-agirian horrelako neurriak eskatzen direnean.
- Haren egiaztapenerako exijitu daiteke erakunde independenteek emandako ziurtagiriak aurkeztu daitezela, hots, ingurumen-kudeaketako sistema bat badutela frogatzen duten ziurtagiriak. Sistema hori EMASen arabera izan daiteke, EMASen araudian aitortutako besteren bat, edo ingurumen-kudeaketako beste europar edo nazioarteko arau bat –adibidez: ISO 14001–.
- Beste dokumentazio egoki bat ere onartu beharko da, baldin eta lizitatzailleak erakusten badu exijitutako sistemaren baliokidea dela.

A priori, ingurumen-kudeaketako neurriak **kontratu guztietan** eskatu daitezke, **horniduren kontratuetan izan ezik**. Nolanahi ere, kaudimenaren betekizun hori **kasu egokietan** soilik eskatu ahal izango da. Eskatu nahi bada lizitatzailleek ingurumen-kudeaketako neurri horiek aipatu ditzatela kontratua egikaritzeko, baldintza-agiriak ingurumen-kudeaketako neurriak sartu behar ditu; horrek justifikatzen du enpresari eskatzea bere kaudimena frogatu dezala, hots, neurri horiek aplikatzeko kaudimena frogatu dezala. Ez litzateke ez egokia ez koherentea izango ingurumen-kudeaketako neurriak eskatzea baldintza-agirietan ez bada horren inguruko baldintzarik agertzen.

Beste alde batetik, ingurumen-kudeaketako neurriak kontratua egikaritzeari buruzkoak dira, eta, hortaz, beraren **gauzapenean inplikaturako enpresei aplikatzen** zaizkie<sup>3</sup>.

*Adibidez, garbiketa-zerbitzuen kontratu batean, eskatzen den kaudimena da garbiketa-zerbitzua gauzatuko duen enpresa lizitatzaillearena, eta ez lizitazioan erabiliko diren garbiketa-produktu eta –makineriaren fabrikatzailearena.*

Gainera, IKSek irismen desberdinak izan ditzaketenez, dokumentazioa lizitazioan aztertzean segurtatu behar dugu lizitatzailleak aurkezten duen **ingurumen-kudeaketako sistemaren irismenak** barne hartzen duela kontratuaren xede den jarduera, hori beharrezkoa baita irismen hori baliozkotzat jo ahal izateko.

<sup>3</sup> Dela baliabide propioak izateagatik dela beste erakunde baten baliabideak izateagatik, betiere lizitatzailleak frogatu badezake baliabide horiek eskura izango dituela gaitasun horiek eskatzen dituzten obra edo zerbitzuak gauzatzeko.





## G. Adibidea. Ingurumen-egikaritzea duten obra-kontratuen betekizuna

- 1** *Obra-kontratu batean, administrazioak exijitzen duenean ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatu daitezela kontratua egikaritzean –obren hondakinen kudeaketa egokia, hauts-emisioen murrizketa, obren inguruko landaretzaren babesa, eta abar–, eskatu ahal izango da enpresak frogatu dezala baduela gaitasuna ingurumen-kudeaketako neurri horiek inplementatzeko.*
- 2** *Egiaztapen gisa, eskatu ahal izango da enpresaren ingurumen-kudeaketako ziurtagiriren bat aurkeztu dadila, EMAS araudiaren edo sistema baliokide baten arabera, edo lizitatzailerean neurriak exijitutakoen baliokide direla frogatzen duen dokumentazio baliokidea aurkeztu dadila.*

Baldintza-agiriak barne sartu behar ditu, espezifikazio tekniko edo egikaritze-baldintza gisa, IKSak kaudimen profesional moduan eskatzeko garrantzia justifikatzen duten ingurumen-kudeaketako neurriak.

Baliagarria izan dadin, enpresaren IKSek barne hartu behar dute obren eraikuntza eta gauzapena, jarduera gisa, horietatik baitira kontratuaren xedeak.



## H. Adibidea. Zerbitzu-publikoen kudeaketa-kontratueterako eskakizuna

- 1** *Udal garraio publikoaren zerbitzua kontratatzen bada eta enpresak kudeatu behar baditu zerbitzurako beharrezkoak diren instalazioak (garajea, tailerrak, garbiketa-tunelak, eta abar), administrazioak exijitu ahal izango du, kontratuaren atal gisa, ingurumen-kudeaketako sistemaren bat inplementatu dadila zerbitzuan, EMAS araudiaren arabera, eta ziurtatu egin dadila zerbitzuaren lehenengo bi urteetan.*
- 2** *Ingurumen-kudeaketako neurri hori zerbitzuan inplementatzeko gaitasun profesionala egiaztatzeko, kaudimen teknikoan eskatu ahal izango da enpresaren ingurumen-kudeaketako ziurtagiria aurkeztu dadila garraio-zerbitzurako, EMAS araudiaren edo beste sistema baliokide baten arabera, edo dokumentazio baliokidea.*

Administrazioak kontratatzen badu zerbitzu publiko baten kudeaketa, eta nahi badu kudeaketa hori ingurumen aldetik jasangarria den modu batez gauzatu dadila, ingurumen-erregulartasunez argitaratuz, administrazioak hori eskatu ahal izango du agiri teknikoan; halaber, kaudimenean eskatu ahal izango du enpresak jadanik izan dezala IKS bat garraio-zerbitzurako, sistema hori zerbitzuari aplikatzeko gaitasuna baduela segurtatzeko.

EMAS eta ISO 14001 IKSen artean ez dagoenez diferentzia handirik (ingurumen-adierazpenean izan ezik), kaudimenean bi IKS moten ziurtagiriak onar daitezke, edo dokumentazio baliokidea.





## Zer dokumentazioa da ingurumen-kudeaketako sistema edo arau baten baliokidea?

Legeak jasotzen du neurri baliokideen beste froga batzuk onartu behar direla, betiere lizitatuak frogatzen badu neurri horiek baliokideak direla aplikatzeko den ingurumen-kudeaketako sistema edo arauan exijitutakoekin.


Lehen ikusi den bezala, ingurumen-kudeaketako sistema bat hauxe da funtsean: enpresa baten operazioen inpaktu negatibo esanguratsuen azterketa bat izatea; inpaktu horiek murrizteko jardura-prozedurak izatea; eta jarraipen-mekanismoak eta erregistroak izatea, definitutako prozeduren inplementazioa segurtatu eta emaitzak monitorizatu ahal izateko.

Horrenbestez, ingurumen-kudeaketako sistema baten ziurtagiria aurkeztu dadila eskatzen denean, egiaztapen-dokumentazio gisa –EMAS arauaren arabera edo bestelako egiaztapen-dokumentazio batez baliatuz–, ziurtatutako sistemarik ez duen lizitatuak beti aurkeztu ahal izango du, egiaztapen-dokumentazio baliokide gisa, kontratuaren xedearekin lotuta gauzatzen duen jardunaren zatiari dagozkion inpaktuen azterketa, eta, halaber, inpaktu horiek murrizteko dituen eta kontratuan aplikatuko dituen prozedurak, jarraipen-mekanismoak eta erregistroak.

Gainera, 2014/24/EB Zuzentarauak (88. kontuan hartuzkoa) jasotzen duen bezala, operadore ekonomikoek I. motako ekoetiketen bidez ere frogatu ahal izango dute ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzeko gaitasuna, betiere horiek ingurumen-kudeaketako irizpideak ezartzen badituzte

Zerbitzuen kasuan, gero eta I. motako ekoetiketa gehiago dago –honako instalazio hauen garbiketa: barrualdeak, inprimategiak, alojamentu turistikoak, tailerrak, eta abar–, eta euren zerbitzuak ziurtatu nahi dituzten enpresek bete behar dituzten derrigorrezko betekizunetako bat da ingurumen-kudeaketako sistema baten oinarriak izatea. Horrenbestez, lizitatuak ekoetiketaren ziurtagiria ere aurkeztu ahal izango dute egiaztapen-dokumentazio baliokide gisa, baldin eta etiketa kontratuaren xederako bada eta barne hartzen badu, bere betekizunen artean, ingurumen-kudeaketako sistema minimo bat izatea<sup>4</sup>.

4 Adibidez, EBko Etiketa Ekologikoa **“Barneko garbiketa-zerbitzuetarako”** lortzeko baldintzetan, derrigorrezko baldintzetako bat da –M5. Irizpidea: ingurumen-kudeaketako sistema baten oinarriak– eskatzaileak bete behar dituela ingurumen-kudeaketako sistema baten oinarriko betekizun minimoak. Horrenbestez, eraikinak garbitzeko zerbitzuaren lizitazio batean eskatzen bada, kaudimen irizpide gisa, enpresak ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatu ditzala, EBko barneko garbiketa-zerbitzuetako Etiketa Ekologikoaren ziurtagiria aurkeztu ahal izango da ingurumen-kudeaketako sistema bateko ziurtagiriaren egiaztapen-dokumentazio baliokide gisa, zerbitzu horretarako.







4

# LABURBILDUZ...

## EKOETIKETAK

Espezifikazio  
teknikoak

Adjudikazio-  
irizpideak

Egikaritze-  
baldintza  
bereziak

Mota guztietako  
kontratuak

## INGURUMEN- KUDEAKETAKO SISTEMAK

Kaudimen  
tekniko eta  
profesionala

Mota guztietako  
kontratuak,  
**horniduren  
kontratuak**  
izan ezik

**Kasu egokia** den  
guztietan



## EKOETIKETEK

- Erosketa berdea errazten dute, zeren lagungarriak baitira espezifikazio teknikoak, adjudikazio-irizpideak edo ingurumen izaerako egikaritze-baldintzak definitzeko.
- Erabilgarrienak arauzkoak dira –derrigorrezkoak direlako merkaturatutako produktu guztietarako–, eta baita I. Motakoak edo horien antzekoak –irizpide espezifikoak eta errespetatu beharreko atalaseak definitzen dituztelako, zeren horrek ahalbidetzen baitu produktu ekologikoagoak bereiztea gehiegizko ezagutza teknikorik gabe–.
- Ekoetiketak aipatzen direnean, baldintza-agiriek argi eta garbi zehaztu behar dute zer ezaugarri eta betekizun bete behar dituzten kontratatu beharreko produktuek.
- Ekoetiketan definitutako betekizun guztiak izan daitezke, edo horien parte bat. Guztiak edo parte bat aipatzea faktore hauen arabera egongo da baldintzatuta: irizpide guztiak ez egotea lotuta kontratuaren xedearekin edo egokiak ez izatea; eskaintza gehiegi murrizteko eta lizitazioa eman gabe uzteko arriskua; edo irizpideak bereziki lehentasunezkoak diren ingurumen-alderdietan zentratu nahi izatea. Horrelakoetan, kontsideratu nahi ditugun irizpide konkrituak soilik aipatuko ditugu, dela baldintza-agirian zuzenean txertatuz dela horiek modu garbian aipatuz.
- Gisa berean, irizpide jakin bat derrigorrezkotzat edo baloragarritzat hartzea faktore hauen mende egongo da: ingurumen-konpromisoa; administrazioak merkatua trakzionatzeko duen ahalmena; eta merkatuak erantzuteko duen ahalmena. Merkatuaren erantzunaren inguruko segurtasunik ez badago, gomendatzen da hasia irizpidea adjudikazio-irizpide gisa sartzen.
- Ekoetiketa bera frogabide gisa exijitu daiteke, hots, frogatzeko produktuek bete egiten dituztela exijitutako edo baloratutako ezaugarri horiek; dena dela, beste etiketa edo egiaztapen-dokumentazio batzuk ere onartu behar dira, baldin eta lizitatzailleak erakusten badu exijitutako etiketaren baliokideak direla.

## INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMAK

- Kaudimen irizpide gisa eskatu ahal izango dira kontratu mota guztietan, horniduren kontratuetan izan ezik.
- Bakarrik eskatu ahal izango dira baldin eta ingurumen-kudeaketako praktika jakin batzuen inplementazioa eskatzen bada kontratua egikaritzeko; horrelakoetan, praktika horiek gauzatzeko gaitasun edo kaudimena justifikatzeko eskatzen dira. Bestela, ez litzateke izango ez egokia ez koherentea.
- Haien egiaztapenerako, exijitu daiteke erakunde independenteek emandako ziurtagiriak aurkeztu daitezela, EMAS araudiaren arabera, EMASek aitortutako beste batzuen arabera, ISO 14001en arabera edo besteren baten arabera.
- Halaber, bestelako dokumentazioen bat ere onartu beharko da, baldin eta lizitatzailleak frogatzen badu exijitutako sistemaren baliokidea dela.

# Ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzekoan egin ohi diren okerrak

Jarraian sartutako fitxetan informazio gehiago ematen da ekoetiketak eta ingurumen-kudeaketako sistemak kontratazioan erabiltzean sarritan gertatzen diren okerez eta horiek saihesteko formaz. Oker horiek eta beste batzuk lhoberen argitalpen honetan kontsulta daitezke: "Ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzekoan egin ohi diren okerrak".

## A Okerra

# Produktu bat ekoetiketa konkretu batez ziurtatuta egon dadila exijitzea

Lizitazio batean obra, zerbitzu edo produktua ekoetiketa jakin batez ziurtatuta egon dadila exijitzea, ingurumen-irizpide gisa, zuzendu beharreko oker bat da. Beraz, oker hori saihesteko, klausulek esango dute ekoetiketan definitutako baldintzak bete behar direla, eta etiketa bakarrik eskatuko da baldintza horiek betetzen direla frogatzen duen dokumentazio gisa; etiketaz gain, gainera, bestelako frogabide egokiak ere onartu behar dira.



Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak ezartzen du, bere 127. artikuluan, nola erabil daitezkeen etiketak<sup>5</sup> –ingurumen-etiketak barne sartuta– kontratazio publikoan.

Artikulu horren arabera, etiketak erreferentzia gisa erabil daitezke kontratatu beharreko obra, zerbitzu edo produktuen ezaugarriak definitzeko eta ezaugarri horiek betetzen direla frogatzeko. Nolanahi ere, legeak jasotzen ez duena da etiketa bat irizpide gisa ezar daitekeela zuzenean. Hala, Legeak ezartzen du kontratazio-organoek:

- Berariazko etiketa bat eskatu ahaliko dute obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako **frogabide** gisa (ulertzen da etiketa lortzeko eskatutako baldintzez ari dela) [127.2. art.].
- Etiketa jakin bat adierazi arren, kontratazio-organoak baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu beharra dauka beti zer ezaugarri eta baldintza ezarri nahi dituen, hau da, eskatutako etiketa zehatzarekin egiaztatu nahi diren ezaugarri eta baldintzak argi eta garbi zehazteko betebeharra dauka beti. [127.5. art.].
- Etiketa batek kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen dituztenean, edo nahi ez bada obra, zerbitzu eta produktuek baldintza horiek guztiak bete ditzatela, baizik eta horien zati bat soilik, klausulek baldintzen zati bat definitu ahaliko dute, baldintza horietatik zeini buruz ari diren adieraziz [127.2. eta 4. art.].
- Gainera, berariazko etiketa bat eskatu arren, etiketa baliokide guztiak onartu beharko dira, eta baita bestelako frogabide egokiak ere. [127.3. art.].

Hala eta guztiz ere, legedian dagoen argitasun faltaren eraginez, lizitazio batzuek oraindik ere eskatzen dute kontratuaren xede den obra, zerbitzu edo produktua ekoetiketa jakin batez ziurtatuta egon dadila.

<sup>5</sup> Honela definituta: kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri.



## Adibidez: Bulegoko papera hornitzeko lizitazio batean, eskatzen da papera ziurtatuta egon dadila FSC edo PEFC ekoetiketarekin

- Azaldu den bezala, Legeak ahalbidetzen du berriazko etiketa bat eskatzea (kasu honetan, FSC edo PEFC) baldintza-agirietan definitutako ezaugarriak betetzen direla frogatzeko bide gisa, baina ez etiketa irizpidea bera izatea –irizpidea ezin egon daiteke ziurtatuta–.
- FSC eta PEFC ekoetiketek zenbait paper mota ziurtatzen dituzte, papera fabrikatzeko erabilitako zur-zuntzen arabera, hau da, kontuan hartuta zer ehuneko datorren baso-ustiategi jasangarrietatik eta/edo birziklatutakoa den. Hala, adibidez, honako FSC paper hau izan dezakegu: % 100 fabrikatuta dago modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiategietatik datorren materialarekin, FSCk baso-ustiategietarako definitutakoaren arabera; fabrikazioan erabilitako zuntzen gutxienez % 70 kudeaketa jasangarrikoa eta/edo birziklatua izatea; edo gutxienez % 85 zuntz birziklatuz (kontsumo aurrekoak eta kontsumo ostekoak) fabrikatuta egotea.
- Bakarrik esaten badugu paperak FSC, PEFC edo antzeko ziurtagiria izan behar duela, Legean ezarritako betebeharrak bat hausten ari gara, alegia, kontratatu beharreko produktu, obra edo zerbitzuak izan behar dituen ezaugarriak argi eta garbi definitzea: birziklatua nahi dugu? Zuraren % 100 ustiategi jasangarrietatik etortzea?, beste ehunekoren bat onartzen dugu?...
- Produktuak izan behar dituen ezaugarrien definizio falta horrek Legearen beste agindu bat oztopatzen du, alegia, frogabide alternatiboak onartu behar izatea, dela ekoetiketa baliokideak dela beste dokumentazio bat.
- Horrenbestez, ziurtatuta egotea irizpide gisa eskatzea Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen betekizun batzuk urratzen ditu, hots, preskripzio teknikoaren definizioari eta etiketen erabilerari buruzko betekizun batzuk.

## Zertan datza arazoa eta nola konpondu daiteke?

Ingurumen-irizpideei dagokien oker horren arrazoi nagusia 127. artikulua erredakzioa bera da; izan ere, berriazko etiketa bat eskatu daitekeela esaten badu ere, etiketa frogabide gisa erabiltzeaz ere hitz egiten du.

Horri eusten dion argudioa da baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu behar dela zer ezaugarri eta baldintza ezarri nahi diren, eta, gainera, bestelako frogabide egokiak onartu behar direla.

Kontuan hartu behar da ingurumen-etiketa edo ekoetiketa gehienak borondatezkoak direla, eta enpresa guztiek –batez ere ETEek– ez dutela baliabiderik euren produktu edo zerbitzuak ziurtatzeko, eskatzen diren baldintzak bete arren. Obra, zerbitzu edo produktuak ziurtatuta egon daitezela eskatzea diskriminatzailea izango litzateke eta lizitazioarekin tratatu desberdina ematera eraman lezake. Bada, hori kontratazio orotan errespetatu beharreko oinarriko printzipioen kontrakoa izango litzateke.

Horregatik Legeak ezartzen du ekoetiketak erreferentzia gisa erabil daitezkeela ezaugarriak definitzeko, eta frogabide gisa eskatu daitezke, betiere beste ekoetiketa batzuk edo egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuz.



## HORRENBESTEZ, EKOETIKETEKIN LOTUTAKO INGURUMEN-KLAUSULAK DEFINITZEN DITUGUNEAN:

- **Ez da eskatuko**, irizpide gisa, **obra, zerbitzu edo produktua ziurtatuta egon dadila**.
- Horren orde, ingurumen-irizpideak berariazko **ekoetiketa lortzeko ezarritako baldintzei erreferentzia eginez definituko dira** –osorik edo zati bate soilik–.
- Pertsona edo enpresa lizitatzailleek aurkeztu behar duten dokumentazioan, **eskatu daiteke ekoetiketa** aurkeztu dadila –dela ziurtagiria dela produktuan jarritako etiketa– **baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko dokumentazio gisa**, horrekin batera **adieraziz beste etiketa batzuk edo bestelako egiaztapen-dokumentazioa ere onartuko direla**, baldin eta lizitatzailleak frogatzen badu ezarritako baldintzen baliokideak direla.

Ingurumen-etiketei buruzko informazio eta jarraibide gehiago ezagutzeko, lhobek argitaratutako dokumentu hau kontsulta dezakezue:

**«Ingurumen-ziurtapenak erosketa eta kontratazio publiko berdean erabiltzeri buruzko gida praktikoa».**



## Zein izango litzateke bertsio egoki bat?

Orain, Kontratuen Legearen ikuspuntutik espezifikazioa modu seguruan erredaktatuta egon dadin zer jarraibide bete behar diren jakin ostean, hasieran emandako adibidea zuzenduko dugu. Hala, irizpidearen balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

### HASIERAKOA

Inprimaketarako papera FSC edo PEFC ekoetiketarekin egon behar da ziurtatuta.

### ZUZENDUTA

Inprimaketarako papera baso-ustiategi jasangarrietatik datozen eta/edo birziklatuak diren zuntzez fabrikatuta egon beharko da % 70eko proportzioan, FSC, PEFC edo horien baliokide den estandarraren arabera.

Frogabide gisa, honako hau aurkeztuko da: eskainitako paperaren fabrikatzailearen zaintza-katearen ziurtagiriak –FSC, PEFC edo baliokideak–; paperaren dokumentazio grafikoa, ekoetiketaren irudiarekin -FSC, PEFC edo baliokidea-; edo baliokidetasuna frogatzen duen bestelako dokumentazio alternatiboa.

- Erredakzio horrekin, argi eta garbi adierazten da zer baldintza bete behar dituen zehazki paperak: haren fabrikazioan erabilitako zuntzen % 70 modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiategietatik etorri behar da, zuntz birziklatuen nahasketarekin edo horrelako nahasketarik gabe; argi geratzen da, halaber, baso-ustiategi jasangarrietako zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen definizioak bat etorri behar duela FSC, PEFC edo beste sistema baliokide batean ezarritako baldintzekin.
- Ekoetiketak erreferentzia gisa erabiltzen dira paperak bete behar dituen ezaugarriak definitzeko; ez da eskatzen papera ziurtatuta egotea.
- FSC edo PEFC ziurtagiriak edo horiek baliokideak aurkeztea egiaztapen-dokumentazio gisa eskatzen da, baina bestelako dokumentazioa ere aurkeztu daiteke<sup>6</sup>.

6 Informazio tekniko gehiago ikusteko, lhobek argitaratutako dokumentu hau kontsulta daiteke: «FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera».

# Lizitatzailleak ingurumen-kudeaketako sistema bat izatea baloratzea

Kontratuak dirauen bitartean enpresa lizitatzailleek ingurumen-jokabide hobea izatea ondo baloratzeko, okerra da ingurumen-kudeaketako sistema ziurtaturen bat izatea soilik baloratzea; horren ordez, baloratu behar dira kontratua egikaritzean aplikatuko dituzten neurri konkretuak, kontratazio-organoarentzat benetan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiei dagokienez.



Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak enpresa edo pertsona lizitatzailleen kaudimenari buruzko 3. Azpiatalean soilik aipatzen ditu ingurumen-kudeaketako sistemak –mota guztietako kontratueterako, horniduren kontratuak izan ezik [88., 90. eta 91. artikulua]–.

Hala eta guztiz ere, kontratazio-agiri batzuetan baloratzen da lizitatzailleak ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak izatea, Europar Batasunaren EMAS sistemaren arabera edo beste europar edo nazioarteko arau batzuen arabera (adibidez: ISO 14001); eta hori bai obren kontratueterako, bai zerbitzuen kontratueterako, eta baita horniduren kontratueterako ere, nahiz eta Legeak ez duen sartzen kaudimen-aukeren artean horniduren kontratuen kasuan [ 89. art.].



**Adibidez: Urbanizazio-obra batzuen lizitazio batean, BALORAZIO AUTOMATIKOKO adjudikazio-irizpide gisa ezartzen da enpresa lizitatzailleek izatea ingurumen-kudeaketako EMAS ziurtagiria edo horren baliokidea**

## Zertan datza arazoa eta nola konpondu daiteke?

Lizitatzailleek ingurumen-kudeaketako sistema izatea (ekoetiketa bat izatea bezala) baloratzeko aukera baldintza-agiriak prestatzeko lanean inplikaturik dauden pertsona askoren desio bat da, zeren erraztuko bailuke ingurumen-minimo batzuk lizitazio askotan sartzea. Nolanahi ere, horrek talka egiten du 9/2017 Legean aurreikusitakoarekin, zeren hor honako hau bakarrik aurreikusten baita kaudimen gisa:

*«[...] kontratua egikaritzean enpresaburuak aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriak adieraztea.»*,

betiere kontratuaren xederako egoki eta proportzionala dela kontsideratzen bada.

Errepikatu diren praktika horiek ikusita, eta kontratazio publikoaren arautze-esparruaren bilakaera kontuan hartuta, Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak hauxe adierazi du bere 786/2019 Ebazpenean:

*«[...] Europar Batasunaren ordenamenduak eta, batez ere, 9/2017 Lege berriak kontratazio publikoaren inguruan izandako eboluzioa ikusita, beharrezkotzat jo da Auzitegi honek gai eztabaidatu baten inguruan zeukan doktrina zehaztea, hain zuzen ere gai honen inguruan: ISO ziurtagiri baten eskuragarritasuna konfiguratzeko aukera, enpresa-kaudimenaren irizpide gisa ez ezik, adjudikazio-irizpide gisa ere.»*

Ebazpenean argitzen da

«[...] ziurtagiri horiek adjudikazio-irizpide gisa exijitu ahal izan daitezzen, **lotura garbia izan behar dute kontratuaren objektuarekin [...]**»

eta kontsideratuko da kontratuaren objektuarekin lotuta dagoela

«**kontratu horren bidez gauzatu behar diren prestazioei buruzkoa denean edo prestazio horiek integratzen ditutenean [...]**».

Hala eta guztiz ere, Auzitegiak hauxe kontsideratzen du:

«[...] errekurritutako baldintza-agirian eskatutako ziurtagiriek **enpresaren ekoizpen-prozesu guztiei egiten diote erreferentzia, orokorrean, hau da, enpresaren ezaugarri bati, baina ez prestazioaren berezko ezaugarri bati, alegia, "eskaintza bakoitzak kontratuaren objektuari begira duen errendimendu maila alderatzea ahalbidetzen duen ezaugarri bati"** [...], 24/2014 Zuzentarauak bere 92. kontuan hartuzkoan exijitzen duen bezala.

«[...] horrek esan nahi du adjudikazio-irizpide gisa txertatutako **ingurumen-alderdiek edo alderdi sozialek eragina izan behar dutela** eskatutako **prestazio konkretuaren emaitzan, eskaintzen ebaluazio konparatibo bat ahalbidetuz haien berezko kalitateari dagokionez**, eta hori ez da gertatzen enpresaren ingurumen-, gizarte- edo korporazio-politikaren ezaugarri orokorrak adjudikazio-irizpide gisa konfiguratzeko direnean [...], prestazio konkretuaren berezko ezaugarrien orde [...]

Enpresa lizitatzailen ezaugarri baten eta eskaintzek kontratuaren objektuari begira duten ezaugarri baten arteko diferentzia hori modu argigarriagoan agertzen da 632/2018 ebazpenean, berdintasun-plan bat izatearen balorazioari dagokionez.

9/2017 Legeak jasotzen duen bezala, kontratua egikaritzean aplikatuko diren berdintasun-planak baloratu daitezke, baina hori ez da gertatzen baloratzen dena baldin bada lizitatzailen plan bat izatea enpresa osoarentzat. Hala, enpresa batek berdintasun-plan orokor bat izan lezake, baina berdintasuna aplikatu gabe uztea kontratu espezifiko bat egikaritzean.

632/2018 ebazpenean laburbiltzen den bezala:

«[...] SPKLaren 145. artikulua urratzen da "irizpidea **enpresa lizitatzailen ezaugarri subjektibo bati buruzkoa denean eta horrela konfiguratzeko denean, (...) enpresa lizitatzailen pertsonal osoa modu orokorrean kontsideratzean, balorazio-irizpideak ez du inolako zerikusirik kontratuaren objektuarekin, eta ez dio inolako kaliterik gehitzen lizitatzailen eskaintza teknikoari; aitzitik, aurkeztutako eskaintzekin zerikusirik ez duen ezaugarri bat –enpresaren ezaugarri bat– baloratu baino ez du egiten"**».

Arazo berbera jorratzen duten beste ebazpen batzuk ere norabide beretik doaz; izan ere, ebazpen horien arabera, lizitatzailen kalitate-ziurtagiriak izatea –ingurumenekoa barne sartuta– baloratzeak ez du ahalbidetzen eskaintzen ebaluazio konparatibo bat egitea, eskatutako prestazio konkretuari dagokionez, eta, hortaz, kontratazio publikoaren legediaren kontra doaz<sup>7</sup>.



## **HORRENBESTEZ, OKER HORI SAIHESTEKO, HONAKO HAU GOMENDATZEN DA:**

- **Ez baloratzea** lizitatzailen ingurumen-kudeaketako **ziurtagiriak izatea**.
- Ingurumen-kudeaketako sistemak **zeharkako eran kontsideratzea**, zerbitzua **gauzatzean** enpresek **implementatuko dituzten** alderdi, prozedura eta **neurri konkretuak baloratuz**.

<sup>7</sup> "Ingurumen-irizpideak kontratazio-publikoan sartzeko egin ohi diren okerrak" argitalpenaren 8. fitxan informazio horri eusten dion informazio gehiago eskaintzen da; izan ere, Legeak baimentzen du ingurumen-irizpideak frogabide gisa aurkeztea, eta ez berezko irizpide gisa, 3. Okerraren fitxan ekoetiketei buruzko azaldutakoaren ildotik.





## Zein izango litzateke bertsio egoki bat?

Goian azaldutakoa kontuan hartuta, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea:

### HASIERAKOA

**BALORAZIO AUTOMATIKOKO** adjudikazio-irizpide gisa ezartzen da:

- Enpresa lizitatzailerik izatea ingurumen-kudeaketako EMAS ziurtagiria edo horren baliokidea.<sup>8</sup>

### ZUZENKETA EGITEKO 1. AUKERA

Honako hau ezartzen da adjudikazio-irizpide gisa, **BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATZEKO**:

- Obrak gauzatzean lizitatzailerik aplikatuko dituzten ingurumen-kudeaketa eta -jarraipeneko neurriak, gai hauei dagokienez: operazioengatik eta erabilitako ibilgailu eta makineriagatik sortutako hauts eta zarataren emisioak, hondakinen sorreraren minimizazioa, haien gaikako bilketa (ahalik eta frakzio gehienetan), eta haien kudeaketa egokia baimendutako kudeatzaileen bitartez.

Horri begira, ingurumen-kudeaketako txosten bat aurkeztu beharko da, proposatutako neurrien zerrenda eta deskribapenarekin eta horietako bakoitzaren inplementazioa segurtatzeko jarraipen-prozedurekin<sup>9</sup>.

- Eskaintzen ingurumen-kalitatearen alderaketa bat egin ahal izateko-ez enpresen alderaketa bat-, kontratuaren objektuari dagokionez, kontratua gauzatzean enpresek inplementatuko dituzten ingurumen-neurri konkretuak ebaluatu behar ditugu, eta ez, besterik gabe, ea enpresek ingurumen-kudeaketako sistema jakin bat ote duten. Izan ere, sistema horiek alderdi asko har ditzakete barne, eta baliteke kontuan ez hartzea guri interesatzen zaizkigunak eta eskaintzak hobeto alderatzea ahalbidetuko digutenak.
- Enpresek ingurumen-kudeaketako sistemak badituzte, eta sistema horietan obrak gauzatzean kontsideratu nahi ditugun ingurumen-alderdietarako (kasu honetan, hautsa, zarata eta hondakinak) prozedura eta baliabide esanguratsuak badaude, enpresei errazagoa izango zaie obretan aplikatu ahal izango dituzten ingurumen-kudeaketa eta -jarraipeneko neurriak deskribatzea, eta, hortaz, horrelako sistemarik ez duten enpresek baino eskaintza hobek aurkeztea, sistema ziurtatuta izanda zein izan gabe.
- Garbi dago, jakina, horrek lan gehiago eskatzen duela (bai enpresentzat eta bai kontratazio-organoarentzat) ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria besterik gabe aurkezteak baino, baina geroago erraztuko du neurri horien jarraipena egitea, kontratua gauzatzean, zeren monitorizatu beharreko alderdien zerrenda konkretu bat egongo baita.

### ZUZENKETA EGITEKO 2. AUKERA

Honako hau ezartzen da adjudikazio-irizpide gisa, **BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATZEKO**:

- Obrak gauzatzean lizitatzailerik aplikatuko dituzten ingurumen-kudeaketa eta -jarraipeneko neurriak.

Horri begira, ingurumen-kudeaketako txosten bat aurkeztu beharko da, kontrolatutako diren ingurumen-alderdiak zehaztuz, proposatutako neurrien zerrenda eta deskribapenarekin eta horietako bakoitzaren inplementazioa segurtatzeko jarraipen-prozedurekin<sup>9</sup>.

- Zuzenketaren 1. aukeran, kontrolatu nahi diren ingurumen-alderdiak zehaztu dira, murriztu nahi diren inpaktuak zehazteaz batera (hautsa, zarata eta hondakinak). Kasu horretan, gehien baloratzen dena da proposatutako kontrol-neurri eta -sistemen kalitatea.
- Bigarren aukera honetan, berriz, ez da ingurumen-alderdi konkreturik zerrendatzen. Izan ere, balorazioak honako hau hartuko du kontuan: lizitatzailerik euren ingurumen-kudeaketako txostenean sartzen dituzten ingurumen-alderdien kopurua eta haien kalitatea.

<sup>8</sup> "Ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzerakoan egin ohi diren okerrak" argitalpenaren beste fitxa batzuetan azaltzen den bezala, falta da gehitzea irizpidearekin lor daitekeen gehieneko puntuazioa, balorazio-parametroak eta puntuen banaketa-tartea.

<sup>9</sup> Aurkeztu beharreko dokumentazioa hemen sartu da, baina egokiagoa izango litzateke gutun-azal bakoitzean aurkeztu beharreko informazioari dagokion baldintza-agiri administratiboaren atalean sartzea.

## Badago salbuespenik?

Aipatu dugun bezala, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak ingurumen-kudeaketako sistemak baloratzeko aukera zabaltzen du, betiere horrek ahalbidetzen badu eskaintzen ebaluazio konparatibo bat egitea, kontratuaren objektuari begira duten berezko kalitateari dagokionez, eta hori oso kasu gutxitan gertatzen da.

Aukera bat sortzen da lizitatzaillearen ingurumen-kudeaketako sistema baloratu beharrean **sistema horren implementazioa** baloratzen denean, kontratuaren xede den zerbitzuaren eskaintzaren zati gisa, jarraian erakusten den bezala.



### **Adibidez: Zerbitzu publiko baten urte anitzeko kudeaketaren lizitazioan (kiroldegia, gizarte-etxea, garraio publikoko zerbitzuak, eta abar), honako hau ezar liteke BALORAZIO AUTOMATIKOKO adjudikazio-irizpideetan**

*EMAS baten implementazioa (5 puntu). Baloratuko da enpresa lizitatzailleak, euren eskaintzaren zati gisa, ingurumen-kudeaketako sistema bat inplementatzeko konpromisoa hartu dezatela, EMAS Araudiaren arabera, gehienez (2) urteko epean kontratua indarrean sartzen denetik.*

- Kasu horretan bai baloratu daiteke ingurumen-kudeaketako sistema bat; izan ere, baloratzen dena ez da lizitatzailleak sistema bat izatea, baizik eta sistema bat ezar dezala kontratuaren xede den zerbitzuan. Sistemaren implementazioa eskaintzea eskaintzaren berezko elementua da, ez lizitatzaillearena, eta, hortaz, ahalbidetzen du berezko kalitatea alderatzea sistema hori proposatzen duen eskaintza baten eta proposatzen ez duen beste baten artean.*
- Beste alde batetik, zerbitzuaren osagai izan behar duen ezaugarri bat denez, eta ez duenez diskriminaziorik egiten lizitatzaillearen artean, kontratazio-organoak eska dezake kudeaketa-sistema EMAS araudiaren arabera izan dadila, eta ez beste arau edo estandar baten arabera. Espedientean bakarrik adierazi beharko da zergatik nahiago den EMAS eta ez beste sistema bat, horren bidez aukeraketa hori justifikatzeko.*

## C Okerra

# Ingurumen-kudeaketako sistema bat izatea kaudimen-irizpide gisa eskatzea

Kontratuen Legearen arabera, kaudimenaren atalean eskatu daiteke ingurumen-kudeaketako sistemen ziurtagiriak aurkeztu daitezela, baina hori frogabide gisa soilik dago aurreikusita, eta ez berezko irizpide gisa. Oker hori saihesteko, kaudimen-irizpideak hauxe eskatu behar du: enpresa lizitatzailleak frogatzea badutela ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzeko gaitasuna –kontratua egikaritzean–; gaitasun hori ingurumen-kudeaketako sistemen ziurtagiriarekin egiaztatzeko modukoa izan behar da, edo egiaztapen-dokumentu baliokideekin.



Nahiz eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak argi eta garbi adierazten duen zer-nolako kontratuetan eskatu daitekeen gaitasun tekniko eta profesionala frogatu dadila, hots, kontratuak egikaritzean ingurumen-kudeaketako neurriak inplementatzeko gaitasun tekniko eta profesionala frogatu dadila [88., 90. eta 91. artikulua], eta ingurumen-kudeaketako sistemak gaitasun hori egiaztatzeko tresna hutsak direla dioen arren [94. art.], oraindik ere badira baldintza-agiri batzuk, ingurumen-kudeaketako sistema baten ziurtagiriak eskatzen dituztenak berezko kaudimen-irizpide gisa, eta ez frogabide gisa.



## Adibidez: Udal kiroldergia kudeatzeko zerbitzuaren lizitazio baten kaudimen profesionaleko irizpideetan, ingurumen-kudeaketako ziurtagiria eskatzen da, EMAS araudiaren edo horren baliokidearen arabera

- *Baldintza-agiri batzuetan, hori berezko kaudimen-irizpide gisa egon daiteke jasota, hau da, irizpidea enpresa lizitatzaillearen ingurumen-kudeaketako ziurtagiria da.*
- *Beste batzuetan, okerra gertatzen da ingurumen-kudeaketako ziurtagiria aurkezteko eskatzen denean, egiaztapen-bide edo frogabide gisa, baina berezko kaudimen-irizpideetan ez da definitu kontratua egikaritzean lizitatzailleak hartuko dituen ingurumen-kudeaketako neurriak, ingurumen-kudeaketako arau jakin batzuen arabera. Egiaztapena ezartzen da, baina ez irizpidea.*

## Zertan datza arazoa eta nola konpondu daiteke?

Ingurumen-kudeaketako neurriei dagokienez, Kontratuen Legeak argi eta garbi bereizten ditu eskatu daitezkeen kaudimen-irizpideak eta kaudimen-irizpide horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kontratu guztietarako (horniduren kontratuen kasuan izan ezik, hots, instalazio-lan erantsirik edo kontratu misto bihurtzen dituen lan gehigarriak ez duten horniduren kontratuetan izan ezik), eta kontratuaren objektuaren arabera egokitzat jotzen denean, kontratazio-organoak honako hau eska dezake:

- **Kaudimen-irizpide gisa**, «*enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriei buruzko adierazpena*» [88., 90. eta 91. art.].
- **Frogabide-gisa**, «*organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkez daitezela, haien bidez egiaztatzeko lizitatzailleak bete egiten dituela ingurumena kudeatzeko zenbait arau*», honako hauei erreferentzia eginez: EMAS araudia, EMASek aitortutako beste ingurumen-kudeaketako sistema bat, edo europar edo nazioarteko arauetan oinarritutako beste arau batzuk, hala nola ISO 14001 [94.1. art.].

Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (TACRC) ebazpen batzuek bereizkuntza hori nabarmentzen dute, baita irizpidea eta egiaztapena nahasteko okerra ere. Hala, 820/2019 Ebazpenean, TACRCk honako hau dio:

«[...] Auzitegi honek behin eta berriro adierazi du **ziurtagiria ez dela berez kaudimen-baldintza bat, baizik eta kaudimena egiaztatzeko dauden bitarteetako bat**; beraz, baldintza administratibo partikularren agiriak bestelako modu batez definitu behar ditu kaudimen-baldintzak, eta ez ziurtagiriak besterik gabe aipatzearen bidez [...].»

Hori indartzen den beste faktore bat da bestelako egiaztapen-formak onartu behar direla, Legeak [94.2. art.] eta ebazpenak berak jasotzen duten bezala

-«[...] bestelako egiaztapen-forma batzuk onartu behar dira [...].»-

Ekoetiketa gehien kasuan bezala<sup>10</sup>, ingurumen-kudeaketako sistemak borondatezko sistemak dira, eta, hortaz, enpresa guztiek –batez ere ETEek– ez dute ziurtapen-prozesua gauzatzeko, aipatutako arauen baldintzekin bat datozen ingurumen-kudeaketako sistemak izan arren. Ziurtagiriak kaudimen gisa eskatzea diskriminatzailea izango litzateke eta desberdintasun-tratua eman liezaieke lizitatzaileei, eta hori kontratazio orotan errespetatu behar diren oinarriko printzipioen kontra joango litzateke.

Horregatik, Legeak ezartzen du erakunde independenteek emandako ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak bide baligarriak direla gaitasun profesional jakin bat frogatzeko edo egiaztatzeke, baina ez direla berez irizpidea; horrenbestez, egiaztapen-dokumentazio baliokidea onartu behar da beti.



### **HORRENBESTEZ, KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALEAN ESKATZEN DIRENEAN KONTRATUA EGIKARITZEAN LIZITATZAILEAK BERMATUKO DITUEN INGURUMEN-KUDEAKETAKO NEURRIAK, HONAKO HAU SEGURTATU BEHARKO DUGU:**

- **Obra eta zerbitzuen kontratu**etan soilik eskatzen dela, **betiere egokia**, esanguratsua eta proportzionala bada kontratuaren objekturako. Lizitatzaileei eskatzeko adieraz ditzatela kontratua egikaritzean aplikatuko dituzten ingurumen-kudeaketako neurriak, baldintza-agiriekin derrigorrezko ingurumen-kudeaketako neurriak sartu behar dituzte, zeren horrek justifikatzen baitu enpresari egiten zaion eskaria, hots, neurriak gauzatzeko kaudimena frogatzeko eskaria. Ez litzateke egokia izango, ezta koherentea ere, ingurumen-kudeaketako neurriak kaudimen gisa eskatzea, baldin eta baldintza-agirietan ez bada aurreikusten horren inguruko inolako baldintza espezifikorik.
- **Ziurtagiria ez da berez** kaudimen-irizpide gisa **eskatzen; aitzitik, kaudimen-irizpidea** lizitatzaileak hartuko dituen **neurriak dira, hots, ingurumen-kudeaketa kontratua egikaritzean bermatzeari begira lizitatzaileak hartuko dituen neurriak**, honako hauetan ezarritako irizpideen arabera: EMAS araudia, EMASek aitortutako beste ingurumen-kudeaketako sistema batzuk, edo ingurumen-kudeaketari buruzko Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako beste arau batzuk.
- Enpresa lizitatzaileek aurkeztu behar duten egiaztapen-dokumentazioan, **eskatu daiteke ingurumen-kudeaketako ziurtagiria** aurkeztu dadila **baldintza betetzen dela frogatzeko bide gisa**; horrekin batera **adierazi behar da** neurriei buruzko **bestelako egiaztapen-dokumentazioa ere onartzen dela**, betiere lizitatzaileak frogatzen badu definitutako ingurumen-kudeaketako sistema edo arauaren baliokideak direla.
- **Ziurtagiria edo egiaztapen-dokumentazio baliokidea kontratuaren xede den jarduerarako izan beharko da, gutxienez**; izan ere, espezifikazio guztiek lotura izan behar dute kontratuaren objektuarekin.

Ingurumen-kudeaketako sistemen erabilerari buruzko informazio gehiago ikusteko, I hobek argitaratutako **«Ingurumen-ziurtapenak erosteta eta kontratazio publiko berdean erabiltzeri buruzko gida praktikoa»** kontsulta dezakezue, eta baita bilduma honetako 7. Okerraren fitxa, gai honi buruzkoa: «Lizitatzaileak ingurumen-kudeaketako sistema bat izatea baloratzea».

10 Ikus "Ingurumen-irizpideak kontratazio publikoan sartzerakoan egin ohi diren okerrak" argitalpenaren 3. Okerraren fitxa.



## Zein izango litzateke bertsio egoki bat?

Orain badakigu zein zen okerra eta nola zuzendu behar den baldintza modu seguruan erredaktatuta egon dadin, Kontratuen Legearen ikuspuntutik; beraz, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Irizpideari eman lekiokkeen bertsio bat honako hau izango litzateke:

### HASIERAKOA

Udal kiroldegia kudeatzeko zerbitzuaren lizitazio baten kaudimen profesionalako irizpideetan, ingurumen-kudeaketako ziurtagiria eskatzen da, EMAS araudiaren edo horren baliokidearen arabera

### ZUZENDUTA

Eskatzen da lizitatzailleak frogatu dezala baduela gaitasuna ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak aplikatzeko kontratua egikaritzean, EMAS Araudian edo arau baliokidean ezarritako parametroen arabera.

Horren egiaztapenerako, EMAS araudiaren edo arau baliokidearen araberako ingurumen-kudeaketako sistema bat edukitzearen ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, gutxienez kontratuaren xede den jarduerarako (kirol ekipamenduaren kudeaketa); horren orde, araudi edo arau horren baliokidea den egiaztapen-dokumentazioa ere aurkeztu ahal izango da.

- Erredakzio horrekin, modu berezian ezartzen dira kaudimen-irizpidea (kontratuak dirauen bitartean ingurumen-kudeaketa egokia egiteko gaitasuna) eta hori egiaztatzeko modua (EMAS ziurtagiria edo antzeko sistema baten ziurtagiria edo dokumentazio alternatibo baliokidea).
- Baldintza-agiri teknikoan edo egikaritze-klausula berezietan egon beharko dira kaudimen profesional hori eskatzea justifikatzen duten ingurumen-kudeaketako betekizunak (hondakinen kudeaketa egokia, ura eta energia aurrezteko neurriak eta abar).



Herri-baltza  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

